

# BANKAKO BERTSULARI OHIEN KOBLAK

Peio Erramouspe *Manexene* (1880-1967)  
Mixel Erramouspe *Ohako* (1899-1967)  
Ximun Ibarra *Zubikoa* (1905-1979)  
Felix Iriarte *Berjinanto* (1912-1987)  
Ximun Erramouspe (1914-1988)  
Marixan Minaberry *Atalki* (1926-...)



**Bankarrek bilduak eta  
2013ko uztailaren 13ko omenaldi  
egunean kantatuak**



# AINTZIN-SOLASA

Huna liburuxka huntan Bankako pertsulari andana batek aspaldiko urte-tan ixkiriatu kantuak. Liburu hunek erakusten du argiki zer aberastasuna izan den gure herrian, ikusiz zer kalitatezko pertsuak idatziak izan diren, zer sakontasuna, zer omorea, zer argitasuna... ez da dudarik pertsulari hauen ohoratzeko manera hoberena izanen dela pertsu hauen bizirik atxikitzea eta gogotik kantatzea.

Liburu hunek erakusten du ere zonbat pertsulari izan diren herri huntan, plazak eta oraino gehiago herriko ostatuak alaitu dituzketenak, bazitaiken giroa karrikan...

Jakintzak atera liburua eta liburuxka hauek laguntzen gaituzte pentsatzen ere nola bizi ziren lehengoak. Lan dorpeak egiten zituzketen, bainan bazakiten ere bizitzen, mintzatzen, astia hartzen, jostatzen, kantatzen... : auzo harreman haundiak bazaizken. Idazlan horiek erakusten daukute argiki gure hizkuntza, kantua, pertsia, musa, ixtorio kondatzek zer ondorio duketen gure bizian, gure izaiteko maneran, jostatzeko maneran, jendetasunean... Hor dugu gure nortasuna eta kulturaren oinarria.

Preseski gure aintzinekoek kultura biziarazi eta pasatu daukutelakotz, eta egun ere azkar delakotz, dugu kantaldi eder hau antolatzen ahal. Nehor baztertzeko xederik gabe, jakin dezagun guk ere, gure xoko huntan oraino bizi den aberastasun horren gazter eta ondoko jenerazioner pasarazten. Horiek ere ukan dezaten gaur bezalako egun eder batzuen antolatzeko parada.

Michel Oçafrain  
Bankako Auzapeza

Esker beroenak bilduma horren egiten lagundu gaituzten guzieri, eta bereziki :

- Beñat Souleri, eskuko zituen bertsuak pasarazirik eta *Neurtitzari Bertsulari Iparraldez* bere liburu baliosetik argazkiak eta xehetasunak erabiltzeko baimena emanik (Euskaltzaleen Biltzarra, Erroteta, Amorebieta, Bizkaia, 2011) ;
- Villabonako Xenpelar dokumentazio zentroari, dokumentazio mamitsua igorririk.

# PRÉAMBULE

La sortie du livre rédigé par Jakintza a permis de réaliser un travail de recherche précieux sur l'histoire de Banca et sur un des points qui en fait sa particularité : sa culture.

L'organisation du kantaldi de ce 13 juillet 2013 illustre ainsi le nombre de pertsulari de Banca qui officiaient dans les frontons des communes du Pays Basque ou plus couramment dans les différents cafés du village. Elle fait apparaître aussi, à travers ces pertsu, une grande qualité de texte, de la sensibilité, une intelligence et un humour incontestables de la part de ces personnes qui n'ont pourtant pas ou peu été scolarisées.

Ce recueil, tout comme le livre de Jakintza, nous aide à imaginer la manière dont vivaient nos anciens. Les travaux des champs étaient certes pénibles ! Mais ils prenaient le temps de vivre, de discuter, de chanter, de s'amuser... Ce travail nous permet de mesurer également l'importance de la pratique de l'euskara dans le chant, les pertsu, les contes, le mus, et ses conséquences sur la façon même de s'amuser, sur la façon d'être... Il s'agit bien du terreau de notre culture, de notre identité.

Cette culture maintenue vivante durant des siècles, et encore forte aujourd'hui, nous permet de réaliser ce magnifique kantaldi. Inspirons-nous de ce que nous ont légué nos anciens pour qu'à notre tour nous transmettions cette richesse aux générations futures sans que personne ne se sente exclu. Nous leur offrirons ainsi la possibilité d'organiser à leur tour, dans plusieurs décennies, des kantaldi tel que celui d'aujourd'hui.

Michel Oçafrain  
Maire de Banca

Nous remercions tous ceux qui ont contribué à l'élaboration de ce recueil, et en particulier :

- Beñat Soulé, pour nous avoir donné les bertsu qu'il avait à sa disposition et pour nous avoir permis d'utiliser les images et renseignements contenus dans son ouvrage *Neurtitzari Bertsulari Iparraldez* (Euskaltzaleen Biltzarra, Erroteta, Amorebieta, Bizkaia, 2011) ;
- le centre de documentation Xenpelar de Villabona, pour nous avoir envoyé une importante documentation.

## **Peio Erramouspe Karrika** ***Manexene* edo *Harrixabal* (1880-1967)**



Peio Erramouspe Karrika *Manexene* edo *Harrixabal* 1880ko urriaren 30ean sortu zen Bankan. Eskola gazterik utzi zuen eta laborantzaz bizi izan zen. Peio Erramouspe ezkondu zen Joana Karrikaburu bankarrarekin 1911ko azaroaren 26an. Bi haur ukan zituzten : Mari Antoaneta eta Triztan Ximun (Ximun soilik deitzen zutena). Bederatzi haurrideetarik sei joan ziren 1914ko gerlarat, horietarik bat Amerikanoekin, han bizi zelakotz, eta denak bizirik gibelarat etorri ziren. Esker onez, Lurderako bidaia egin zuten Bankako bos-tek, joan-etorria ortutsik. Peio Erramouspe 1967ko ekainaren 23an zendu zen.

Bat-bateko sariketa batzuetan agertu bazen ere, Peio Erramouspek familia-ko ospakizunetan zuen bat-batekoan kantatzen gehienik eta herriko besta bakar batzuetan. Idatzi bertsuetan zuen halere dohain eta lana agertzen hobekienik. Batzuk diote anitz maite zuela kantu zaharren kantatzea ere.

Huna zer zioen Xan Elissalde Sallaberry *Zerbitzari* apez eta bertsulari azkaindarrak Manexeneren bertsuez :

« Erramouspe-k primetan hasten badu kanta  
Gutarik bat parez par ez zaioke planta  
Nola kantatzen duen edozoin sujeta  
Harek egin kantetan deusik ez da falta »

Eta Jules Moulier Hiribarne *Oxobi* apez eta bertsulari bidarraitarrak :

« Erramouspe-re menditik urrun ez da gogotik ibiltzen  
Bankan pozik da kanta ta kanta ez da sekulan ixiltzen »

Sari andana lortu zuten bere bertsuek eta 1946an epaimahaikide egon zen Donibane Lohizunen eta Hazparnen Hernandorenaren sariketan.

## **Peio Erramouspe Karrika Manexene ou Harrixabal (1880-1967)**



*Peio Erramouspe Karrika Manexene ou Harrixabal naquit le 30 octobre 1880 à Banca. Il quitta l'école très jeune et devint agriculteur. Peio Erramouspe se maria avec Joana Karrikaburu de Banca le 26 novembre 1911. Ils eurent deux enfants : Marie-Antoinette et Tristan Ximun (que l'on appelait simplement Ximun). Ils étaient neuf dans sa fratrie ; six frères firent la guerre de 1914, dont un dans les rangs de l'armée américaine car il avait déjà émigré là-bas, et tous revinrent vivants. En signe de gratitude, les cinq de Banca firent le pèlerinage de Lourdes aller-retour à pied et pieds nus. Peio Erramouspe décéda le 23 juin 1967.*

*S'il se produisit parfois à des concours d'improvisation, c'est lors des fêtes de famille que Peio Erramouspe improvisait le plus, ainsi que lors de certaines fêtes de village. Cependant, c'est tout de même dans les bertsu écrits qu'il montrait le mieux tout son talent et son travail. Certains disent qu'il aimait aussi beaucoup chanter les vieux chants.*

*Ses vers furent récompensés par de nombreux prix, et en 1946 il fit partie du jury du concours de bertsu organisé par Hernandorena à Saint Jean de Luz et à Hasparren.*

Peio Erramouspe KARRIKA *Manexene* edo *Harrixabal* (1880-1967)

## APEZ BERRI BAT

Sauveur Gainza Atxaurraineko gazte apeztu berriaren omenez

*Airea : Gure patroin saildua Jondoni Petri*

1

Jesusek erran zion : Petri hunat haugi  
Arraintza utzi eta eni jarraik hadi  
Galde bera egin du zure bihotzari  
Apez egin beha'uzu ene zerbitzari

***Errepika :***

**Laudorio ohore apez berriari  
Betikotz eman baita Jesus maiteari**

2

Zuk orduan onartu Jesusen galdea  
Eskolan hartu behar da jakitatea  
Satanek liluratu nahi du gaztea  
Debalde hedatu du zuretzat sarea

3

Arimentzat gatzia da apeza lurrean  
Eta ere argia ilunbe beltzean  
Jainkoaren ordaina kofesionalean  
Arimen ezartzeko zeruko bidean

4

Benedika aitamak eta haurrideak  
Ahide adixkide herriko jendeak  
Bozkariatzen gaitu zure apezteak  
Jainkoari osoki hola emaitak

5

Jainkoari eskerrak egun eder huntan  
Otoitz egin dezogun guzien onetan  
Apezak izan ditene gure herrietan  
Behar haundia baita bazter guzietan

**Peio Erramouspe KARRIKA *Manexene* edo *Harrixabal* (1880-1967)**

**ARTZAIN MENDIAN  
(1924an *Gure Herriaren* sariketan 2. garait saria)**

*Airea : Lurraren pean sar nindaiteke*

1

Kukua kantuz hasten denean etorri da primadera  
Nere ardiak lerro lerroan abiatu niz mendira  
Etzaut goizegi berriz heltzea joanden urteko tokira  
Bozkario bat arras gozoa etortzen zaut bihotzera  
Ikus orduko nere etxola mendi hartan urrunera

2

Primaderako jauntzi ederrak apaindu ditu mendiak  
Harat beharrez lehenbailehen bidean ditut ardiak  
Aldapañoa gora dohazi aldean bildots gaztiak  
Xurikok au au arboletarik xixtu ta xixtu xoriak  
Joare larrien bulunbekilan airatuz bazter guziak

3

Ene etxola gaixo etxola hemen nauk hire aldean  
Errege baino urosago nauk egonen hire barnean  
Harroka bati josia dago azkar ene orroitean  
Kurutzeño bat emana diot atearen gain gainean  
Etsai gaixtotik begiratzeko oldartu nahi denean

4

Mendi gainean orai hemen naiz etorri arte negua  
Hedoiak bezain gora abantxu zeruraino hurbildua  
Hemen du hemen ere bihotzak hatzemaiten sosegua  
Bakean eta libertatean oi zer denbora gozua  
Goizetik arrats xoriek kantuz naukatela xoratua

5

Ardiak alharazten ditut hor argia hasten denean  
Atxik ahala asetzen dira nik gasna egin artean  
Bainan gero sar arazten ditut bero bada itzalean  
Xuriko ingurinkak beti han dute beren aldean  
Basa ihizi gaixto guziak haizatuz ber'aitzinean

**Peio Erramouspe Karrika *Manexene* edo *Harrixabal* (1880-1967)**

6

Gerren batean erre xingarra bai eta talo guria  
Gopor haundi bat esnez beterik huna ene janaria  
Edaritzat aldiz ur garbia artetan arno gorria  
Hola niz azkar larrua garbi arrosa bat iduria  
Ni urrikari nauena daukat bera urrikalgarria

7

Artzain lagunak jostatzen gira elgarren ganat bildurik  
Sorhopiletan pilotan ariz eta musean ondotik  
Bai eta ere igandetako mezarat jausten menditik  
Gibelakoan bidean kantuz eta koplaka gogotik  
Zoinek hobeki irrintzinaka iluna jinez geroztik

8

Asko badira dohakabeak beren nahiz mundu huntan  
Herritar gazte batzu badazkit halakoak hirietan  
Zorion bila beren ustean harat joanak menditikan  
Jainkoak daki zer ari diren hango zoko ilunetan  
Ni bezalatsu artzain balire hobe lukete miletan

9

Ezin biziaz alferrak badu egiteko zinkurina  
Nik aldiz urte guziez beti nasai biltzen dut mozkina  
Dote eder bat badaukat eta hoberenean adina  
Menditar nexka gazte batekin ezkontzeko hitz egina  
Jainkoak benedika dezala gure bien xede zina



Peio Erramouspe Karrika *Manexene* edo *Harrixabal* (1880-1967)

**BEDATSA EDO PRIMADERA**  
**(1909an Hazparnen iragan Euskaltzaleen Biltzarraren sariketan**  
**6. garait saria)**

*Airea : Orhiko xoriñoa*

1

Lau denbora zatiez egina urtea  
Zati batez gogo dut egin kantatzea  
Ahal den bezain xuxen haren aipatzea  
Zeren den edergailu guzietz betea

2

Neguaren ondotik zoin den xoragarri  
Bedatsean sartuak garenean jarri  
Bazterrak ikustean liliez ihaurri  
Bozkarioz bihotza jauzika zaut ari

3

Nor ez da bozkarioz gaindika betetzen  
Ikustean bazterrak ederki apaintzen  
Xoriek xaramelan ozenki kantatzen  
Goizetik arratsarte ez dira ixiltzen

4

Argia urratzean hasten dira kantuz  
Atsegin dutelakotz bedatsean sartuz  
Lore eta ostoan artetan finkatuz  
Errepikan dagozi ezin eneatuz

5

Aran, sagar, udare, gerezi, mertxika  
Lorez emokatuak baitaude gaindika  
Erleak berriz hetan air'eta pausaka  
Ezti biltzen dabilta zoina gehiagoka

6

Denbora hasten baita hotzetik epeltzen  
Orduan hasten dira loreak agertzen  
Loren ondotik berriz ostoak zabaltzen  
Zelai eta mendiak belarrez estaltzen

**Peio Erramouspe Karrika *Manexene* edo *Harrixabal* (1880-1967)**

7

Lurrez gain guzia holaxe jarria  
Lorez ostoz beharrez dena estalia  
Iguzkaldearekin da xoragarria  
Zeren jauntzia baitu arropa berria

8

Goizetan has orduko urratzen argia  
Ohean ez dagoke nun ez den nagia  
Kanpo guzia baita lorez usaindia  
Goxotasun bat badu biziki haundia

9

Laborari bipila goizikan jeikirik  
Lanari lotzen zaiko bozkariaturik  
Gogo arin eta indarrez beterik  
Guti du hautemaiten lanaren nekerik

10

Nihoiz ez du kausitzen egun hoberikan  
Lanarekin artzeko airoski borrokan  
Lorez inguratua alde batetikan  
Bertzetikan xoriak kantu errepikan

11

Bere lanak bozturik baititu egiten  
Lurрак irauli eta artoak ereiten  
Ogiak ere hasi baitzaizko burutzen  
Pentzetako belarrak ederki luzatzen

12

Zer loria artzainak ez du bedatsean  
Bildotsak gizen eta ardiak asean  
Mendirat buruz doha botzik maiatzean  
Gainak oro belarrez bete direnean

13

Ederrener joareak emanik lepotik  
Kantuz bidean doha mendirat gogotik  
Lehenikan zelaian mendian ondotik  
Mozkina nasai heldu zaiko bedatsetik

**Peio Erramouspe Karrika *Manexene* edo *Harrixabal* (1880-1967)**

14

Bozkarioz baititu kantatzen kantuak  
Ikustean ardiak ase hanpatuak  
Egun guziet kasik hiru lau kaikuak  
Hekietarik dauzka esnez gaindituak

15

Bedatsean zaharra iduri gaztetzen  
Bozkarioak baitu hala ernarazten  
Bere gazte denboraz orduan orhoitzen  
Irri batekilan du bazterrer behatzen

16

Urteak bedatsea du gazte denbora  
Usain gozo batekin osoki ederra  
Bertze denborak ere hainbat eder dira  
Hekien aldean zu ederrago zira

17

Eder et'aberatsa bat bertzearekin  
Izaite on horiek biak elgarrekin  
Nihoiz ezin enea bihotza zuekin  
Zeren duzun egiten handizki atsegin

18

Zahar ala gazteak sendoak eriak  
Jende eta kabala haundi ta ttipiak  
Bai eta bereziki aireko xoriak  
Bedatsean baitaude bozkariatiak

19

Bedats guziet kantuz artzen da kukua  
Lorez eta ostoez da inguratua  
Bedatsa urruntzean jartzen ixildua  
Halaber dut ixiltzen nik ere kantua

20

Aurtengotzat akabo zirela ikusiz  
Gogo ilunikan orai baratzen niz  
Ikusi gogo zaitut nik oraino berriz  
Jainkoak uzten banau bizirik halabiz

## BURUZ-BURU

*Airea : Otxalde eta Etxahun*

1

Aitzurra eta pala aldizka lanean  
Eskorgak eta haga nere sahetsean  
Begitarte arrai omere onean  
Goizetik arratserat errege bidean  
Ni bezen urus nor da mundu zabalean

2

Nere lehen auzoa herriko fakturra  
Akitua heldu da hortxet petik gora  
Izertia zurrustan kopeta behera  
Egin behar oraino itzuli ederra  
Arno trago on baten baluke aiherra

3

Gaizo adiskidea ni bezala bahintz  
Urusago hindaike munduan mil'aldiz  
Idor badaukak ere kopeta izerdiz  
Hor hiz hire haitzurra ja ezin atxikiz  
Egun guzia tente ariko behar hiz

4

Diok kopeta idor egoiten nizala  
Zeren eta ez bainiz hi bezain ahula  
Lekuko hemen tiat haitzur eta pala  
Erraiten balakite hauek nik bezala  
Erran lioe langile hoberik ez dela

5

Ainitz aldiz hutsean hindezaket kausi  
Banintz asko bezala hire buruzagi  
Zonbat aldiz nihaurek ez diat ikusi  
Hire tresnak bakarrik ditukala utzi  
Auzoarekin hintzan lanetik ihesi

**Peio Erramouspe Karrika *Manexene* edo *Harrixabal* (1880-1967)**

6

Alta ez duk hik ere hain gogo suharra  
Ardura izaten duk laguntzen beharra  
Ostatuan egonik denbora sobera  
Egungoak uzten tuk aise biharrera  
Berdin igor hurrekin urrunenetara

7

Nondik nahi laguntzak izaiten tiak nik  
Letren erabiltzeko atsegina gatik  
Hortaz ez duk munduan ni bezain urusik  
Hik aldiz nehor ez duk solasetan baizik  
Lanean uzten haute ardura bakarrik

8

Hire egitekoak bertzeren eskuan  
Jakintzak ditukala beti irriskuan  
Norbeitek nahi badu hi gatik gostuan  
Letra atxikiko dik gorderik zokuan  
Bere zuzena gabe jabea orduan

9

Debrua atxeman nauk orai erdiz-erdi  
Bertzerik erran gabe gaiten beraz geldi  
Bakotxak bertzen hutsak kausitzen tik handi  
Bererik nehoiz ez tik gutienik sendi  
Gure hutsak mendiska bertzerenak mendi

## ESKUALDUN KANTARIA

*Airea : Ttiki-ttikitik*

1

Gure Jainkoak emanik badut jite bat maitagarria  
Ene entzuten xoraturikan hor daukat Euskal Herria  
Kantu zaharren eta berrien kantatzea dut loria  
Goiz arrats kantuz ari naiz nola primaderako xoria

2

Lehen kantua kantatu nuen denborak ditu haurñoan  
Goxo-goxoa nindadukala ene amattok altzoan  
Geroztik hunat ametsetarik kantua daukat goguan  
Gau ta egun lanean ere kantu eginez gostuan

3

Ene kantua entzun orduko niganat laster jendeak  
Ene kantuak xoratzen ditu ardura aditzaleak  
Laudorioka eskuak joka hor ari dire guziak  
Oihu eginez ez dik parerik Eskualdunn kantariak

4

Kantu eginez laudatzen dut nik Jainkoaren ontasuna  
Kantu eginez kontsolatzen dut triste nigarrez dagona  
Kantu eginez ahantzarazten dakot zorigaitz iluna  
Solas idorrak baino hobeki kantua baita entzuna

5

Ene bizia holaxe doha kantu eginez bakean  
Jainko Jaunari galde bakar hau kantatuz ardurenean  
Ene eguna alegeraki bururatzen direnean  
Onets dezazu kantuz sar nadin zure zeru ederrean

Peio Erramouspe Karrika *Manexene* edo *Harrixabal* (1880-1967)

**ESKUALDUNAK ETA GERNIKAKO ARBOLA  
(1908an Atharratzen Euskaltzaleen Biltzarraren sariketan  
ohorezko aipamena)**

*Airea : Gitarra xahar-xahar bat dut nik ene laguna*

1

Eskualdunek ohore egun Gernikari  
Hango arbola eder xoragarriari  
Zeren zaukun hedatzen orotarari  
Zazpi Eskual Herri ederren lokarri

2

Elgar maitatzen dugu Eskualdun guziek  
Anaiatasun batez haundi'ta ttipiek  
Nahiz bi aldetarat gauzkaten mendiek  
Gernikako haritza lokarri zazpiek

3

Orok erraiten zuten eroria zela  
Eskualdunak betikotz galduak ginela  
Bainan laster berri bat etorri zaukula  
Hil badare umeak azkar dituela

4

Mil urte iraganik azkenean hil zen  
Gur'arbaso zaharrak harat ziren biltzen  
Eskualdunen zuzenak handikan beiratzten  
Elgarrekin suharki hantxet hitz egiten

5

Españan Gernikako arbolaren pean  
Frantzia Uztaritzen Haitzeko gainean  
Ikusgarriak ziren bat ala bertzean  
Beren zuzenen alde mintzo zirenean

6

Uztarizko biltzarra aspaldi galdua  
Seietan hogoi urte badu hurbildua  
Orhoitzapenak dauku arintzen gogoa  
Estekan dugulakotz geroztik lepoa

**Peio Erramouspe Karrika *Manexene* edo *Harrixabal* (1880-1967)**

7

Oraino irauten du Gernikan biltzarrak  
Han dire bateratzen Eskualdun zuhurrak  
Odol asko zainetan bihotzez suharrak  
Inoiz ez du baratu etsaien beldurrak

8

Arbola saindu hura bizi zelarikan  
Ordaina utzi zuen bere hazitikan  
Ama hila aldean han da geroztikan  
Haundi ta azkar doha beti indarretan

9

Mende hunen hastean haitz gazte hartarik  
Zazpi ezkur zituzten ezarri erainik  
Eskual Herri bezanbat hola berexirik  
Agertu ote dira zazpiak sorturik

10

Zazpi erainetarik bortz dira agertu  
Biga lurrean dira sort'gabe gelditu  
Biga galtze hortarik zer ote da heldu  
Nahiago ginuke ez balire galdu

11

Landare hetarikan bat guri igorri  
Orduan bozkarioz oro gira jarri  
Bihotzez amodio ezpainetan irri  
Uztaritze Haitzean landaturik zarri

12

Oi Gernikaren ume parerik gabea  
Atsegin da guretzat zure ikustea  
Zu zira orai gure kontsolatzailea  
Libertate sailduko arbola maitea

13

Arbola saildua du orai Uztaritzek  
Ohora dezagula Frantses Eskualdunek  
Besta gaitzak eginez hortako guziek  
Pilota dantza eta bertsuak zonbaitek



**Peio Erramouspe Karrika *Manexene* edo *Harrixabal* (1880-1967)**

14

Hori zen lehenago toki hautatua  
Hor egiten baitzuten biltzar aipatua  
Haundi ta azkar zaite arbola saildua  
Gutaz izanen zira beti maitatua

15

Toki horren gainean gure aitek lehen  
Orhoit gaiten guziak zer egiten zuten  
Batasunean zuten suhar hitz egiten  
Eskualdunen zuzenak oso egon ziten

16

Gizon bedera zohan herri bakotxetik  
Biltzar denbora zuten iragaiten xutik  
Ororen buruzagi zena zen bakarrik  
Harrizk'alki batean egoiten jarririk

17

Ikusgarri ederrak ziren denboretan  
Orhoitzapena dugu orai bihotzetan  
Odolikan duguno guhaurek zainetan  
Eskualdun izan gaiten hitz eta obretan

18

Ez bagir'Eskualdunak lehen bezain handi  
Apaldu gabe xutik beden gaiten geldi  
Gernikako arbola dugula lokarri  
Beti tink atxikiak bihotzez elgarri

19

Eskuarazko hizkuntza atxikiz mihian  
Berdinikan ez baitu lurraren gainian  
Lehengo fede bera horrekin batean  
Zeruan izaiteko eternitatean

GERLA HAUNDIA

*Airea : Kailla kantuz ogi petik*

1

Hemeretzi ehun eta hamalauko urtean  
Agorrilaren lehena atsalde apalean  
Ezkila errepiketan aditu nuenean  
Ikara bat eman zautan boz harek bihotzean

2

Ezgilak huna zer zion bere boz ozenean  
Frantzia gertatzen zela hertsamendu gaitzean  
Ene haurrak orai xuti guziak bat batean  
Alemana jazarri zaut ero bulta tzarrean

3

Nola primaderan dohan urtzo papo ñabarra  
Airez aire hegaldatuz hegotik iparrera  
Halaber laster joan ginen Alemanen bidera  
Haren oldar eroaren nolazpait trabatzera

4

Beljika ttipia zuen lehertu zangopetan  
Gu laster xehakatzeko iraganik handikan  
Batzu gure alde eta bertzeak heiekilan  
Europa gehiena zen ixtante jarri sutan

5

Lehenbiziko guduan nagusitu zitzaunkun  
Orduan gu ihesari Pariseri ez urrun  
Hango armada bat jin zen Marnerat gure lagun  
Gudu bakar oste bera izan ote da nehun

6

Marnen garraitu ginuen bainan hark ez etsitu  
Bertze gisa batera zen handik goiti jokatu  
Satorrek bezala zuen lur azala zilatu  
Holaxet nahi gintuen bera gordez garraitu

7

Gu ere hura bezala sartu ginen lurrean  
Burdin harizko hesiak emanik aintzinean  
Nork erran zer pairatu den zilo heien barnean  
Lotseria bat lotzen zaut oraino orroitzean

**Peio Erramouspe Karrika *Manexene* edo *Harrixabal* (1880-1967)**

8

Frantzia buru batean holaxet zen hetsia  
Nolazpait gibel aintzinka lau urtez atxikia  
Etsaiak ez utzi nahi hartu zuen pozia  
Ortzantza iduri ari burdinazk'erauntsia

9

Auhenik eta nigarrik baizik etzen orotan  
Herriak gizonetarik hustu ziren bet betan  
Emazteak eta haurrak zaharrekin etxetan  
Berri txarraren beldurrez zaudelarik gogoetan

10

Gerla itsaso gainean gerla itsaso pean  
Lur gainean lur barnean bait'ere airean  
Herioa marrumaka beti gure aldean  
Ginon : ifernua da jarri orai lurrean

11

Verdugo inguruetan metaka hil gaixuak  
Hobirik gabe lurrean iguzkiak belztuak  
Asko gorputz ezin erran nola xehakatuak  
Biziak heien aldean ja hil bilakatuak

12

Azkenean Jainko Jauna zitzaukun urrikaldu  
Ama Birjinak baitzuen guretako otoiztu  
Ziloetarik ihesi etsaia abiatu  
Bere lurretan sartzean hark bakea galdetu

13

Jondoni Martin goizean lau urteren burian  
Su izigarria hil zen eguerdi aintzinean  
Foch haundia buruzagi jarri ondar urtean  
Harek gidatuz garraitu ginuen azkenean

14

Hamabortz ehun mila hil frantses gizonetarik  
Bertze hainbertze mainkertu betikotz ahuldurik  
Aita amak nigarretan beren haurrak galdurik  
Asko haur gaixo orobat ez dutenak aitarik

15

Gerlan hilez orroit gaiten orai bake denboran  
Herriarentzat baitute beren odola eman  
Heier esker gure lurra guretako da izan  
Jainkoa otoitz dezagun bere ganat har ditzan

**KRISTOF COLOMBO AMERIKETAKO LURRETAN**

*Airea : Lurraren pean sar nindaiteke...*

1

Kristof Colombo jin zen mundurat hamabost garren mendean  
Geneba deitu hiri ttipian Italiako lurrean  
Ait'ama onek giristinoki altxatu zuten haurrean  
Eskoletarik atera baitzen hamalau garren urtean  
Untziko mutil ttipi omen zen Kapitain baten menean

2

Haur gazte harek iduri zuen itsas gainean sortua  
Eta zerutik izpirituzko dohainez aberastua  
Goizetik arrats eskutan zuen lana edo liburua  
Eta ikasi gazte zelarik untzietako gudua  
Nun egin baitzen itsasorako amiral bat famatua

3

Hark jakintsunen liburuetan irakurtu zuenean  
Mundu hau dela bola handi bat biratzen dena airean  
Bere oinekin itsasoa hor dabilana galtzarrean  
Eta leihorak badituela ur horren beste aldean  
Europanoek argiratuak hegoan ta iparrean

4

Kristof Colombi horren gainean etortzen zaio gogorat  
Europanorik ez dela izan mendebaleko parterat  
Hartan baitzuen deliberatu joaitea alde hartarat  
Ziolarikan ez baniz heltzen han diren leihorretarat  
Lurra biribil denaz geroztik joanen naiz Indietarat

5

Jaun horrek zuen bidaia hori kartsuki deliberatu  
Bai eta hiru erresumetan zerbait laguntza galdatu  
Italian baizuten burlatu Portugalen enganatu  
Erregek eta bai erreginak Espainian fagoratu  
Berak bezala Jainkotiarra zutenean ezagutu

6

Isabelak hori zion galdegin zertan daukazu gogoa  
Hango lekuez jabetu nahiz ote da zure gudua  
Colombok zuen bi hitzez eman zuhurki arrapostua  
Jainkorik gabe bizi direnez badut urrikalmendu  
Nahi diotet hau erakutsi Ebanjelio saindua

**Peio Erramouspe Karrika *Manexene* edo *Harrixabal* (1880-1967)**

7

Isabelak hor ezagaturik jaun haren fede bizia  
Erraiten dio emanen dautzut behar dukezun guzia  
Lau-hogoi eta hamar mariñel, urte baten hazkurria  
Bi untzi ttipi, Pinta ta Niña, handi bat Santa Maria  
Eta Alonso deitzen dugun bat untzi gidari nausia

8

Egun berean Kristof Colombok mintzatu zuen Alonso  
Galdatzen dio baduka bihotz untzi hoi bidatzeko  
Mendebaleko itsas beltzetik Indietarat heltzeko  
Ez baitakigu nun eta nola noiz garen lur hetarako  
Ez nitek behar beldurti denik bidaia horri lotzeko

9

Jauna oraino zuk ez dakizu zoin arrazatarik naizen  
Eskualdun bati diozunean bihotz dun denetz galdatzen  
Odol hontako gizonik ez da lanjerretan ikaratzen  
Usatua naiz ipar aldean bale-arraintzan ibiltzen  
Ni ariko naiz lotsarik gabe zuen untzian bidatzen

10

Hamalau mende lau hogoi eta hamabi garren urtean  
Agorrilaren lehen eguna argitzen hasi zenean  
Hiru untzi hek agertu ziren Falou deitu ibarrean  
Santa Mariak zuen bandera bergandinaren gainean  
Jesu Kristoren itxurarekin kurutze ferde batean

11

Agorrilaren hiru garrena hartu zuten partitzeko  
Ikusliarrez ibar guzia estalia zen argiko  
Mariñelak han erne zabiltzan itsasoari lotzeko  
Colombok zuen egin oi hu bat belak oro goratzeko  
Eta Jesusen izen saindua haizeari hedatzeko

12

Ipar goxoak zuen agertu itsasoa lano petik  
Eta untziak partiarazi zabalerat ibaiatik  
Colombok zuen azken agurra igorri untzi gaineratik  
Bai eta laster itzali ziren ikuslierren bistatik  
Ainitzen ustez behin betikotz Espainiako lurretik

**Peio Erramouspe Karrika *Manexene* edo *Harrixabal* (1880-1967)**

13

Zorionezko gau-egun batzu izan zituzten hastean  
Kanariako leihor handia bistatik utzi artean  
Bainan gero han sartu baitziren itsaso arrotz beltzean  
Tiroin bortitzak haize makurrak eta beti lano pean  
Itsasoetan izan daiteken lanjerrik handienez

14

Bi ilabete lotsagarriak hola iragan zituzten  
Nun mariñelak hasi baitziren nagusiari erraiten  
Ez bazakien lurak nun ziren zertako abiatu zen  
Mehatxatua laidostatua ero batentzat zaukaten  
Untzi hartarik aurtikitzia aipatzen ere zioten

15

Goiz eder batez hurbildu ziren untziak elgarretarat  
Eta Alonsok ikusi zuen xori andana handi bat  
Colombok dio xori gaixoak dohatzi pausa lekurat  
Segi ditzagun beraz untziak guk ere alde hartarat  
Orai segur naiz hurbil garela nunbaiteko lurretarat

16

Arrats berean mariñeleri Colombok erran zioten  
Iduritzen zait urrun argi bat ikus orduko itzaltzen  
Igan zaitetze bergandinarat heia handik ageri den  
Harat orduko oihuz dagotzi ikusten dugu ikusten  
Oi lurra arras hurbil dugula orai dugu ezagutzen

17

Leihor hartarat heldu baitziren urriaren hamabiko  
Colombo zagon argi hastean otoitzean belauniko  
Etortzen zaizko mutil guziak barkamendu galdatzeko  
Erran zioten bai bihotz onez derautzuet barkatuko  
Izan zaitetze bozkariotan orai lurrerat jausteko

18

Bere soineko ederrenekin eta ezpata gerrian  
Colombo han zen jautsi lehenik eta sartu leihorrian  
Beste guziak haren ondotik zoatzen mundu berrian  
Gelditu ziren mendixka batek duen toki gorenean  
Eta landatu berek eginik kurutzetto bat lurrean

**Peio Erramouspe Karrika *Manexene* edo *Harrixabal* (1880-1967)**

19

Kurutze haren inguruetan belauniko ziren jarri  
Toki hetako lehen otoitza zuten zerurat igorri  
Eta kartsuki eskerrak eman trinitate sainduari  
Ohore eta laudorioak mariñelen izarrari  
Hainbeste lanjer lazgarrietan lagundu zituenari

20

Kristof Colombok deitu zituen hurbil zaitezte nigana  
Jakin zazue toki hau dela orai Jesu Kristorena  
Beraz hortako emaiten diot San Salvador-en izena  
Espainiaren izanen dute toki honen gozamina  
Han Isabel erregina da lur hauen jabe zuzena

21

Colombok zuen Indietarat helduko zela hitz eman  
Bainan sartu zen urte gaberik Amerikako lurrean  
Geroztik honat Europanoak badabiltza toki hetan  
Zenbat aberats ez da ikusten erresuma guzietan  
Jaun hari esker egin direnak guziz Eskual Herrietan

Peio Erramouspe Karrika *Manexene* edo *Harrixabal* (1880-1967)

**LARRAZKENA**  
**(1912an Donibane Garazin Euskaltzaleen Biltzarraren sariketan**  
**ohorezko aipamena)**

*Airea : Hogoigarren urterat ari naiz hurbiltzen*

1

Uda bero gaitzekin horra iragana  
Denbora goxatua oi zer zoriona  
Hamabi oren gaua hamabi eguna  
Ordutikan hasten da beti larrazkena

2

Gau luzeak eguna ezti du ezarri  
Gozo guzien ama duela iduri  
Eskerrak zor ditugu zeruko Aitari  
Eta hark igorririk jin larrazkenari

3

Urriko hilabete parerik gabe  
Laboraria ez da ez atsegabe  
Bil ahala hazkurri badu etxaldean  
Gose beldurra urrun du larrazkenean

4

Artoak zohituak bai eta gaztenak  
Molko onduak dauzka dilindan aihenak  
Barririk beteko tu hekien urinak  
Holako gauzak ditu beti larrazkenak

5

Arbolari fruitua eroria zako  
Larrean da ezkurra eta bertze asko  
Gure kabala maitea ongi gizentzeko  
Horra zer gauzak diren jin larrazkeneko

6

Lertsunak karrankaka airean gorarik  
Urtzo urdinak berriz hegalak zalurik  
Iragaiten zauzkigun Eskual Herritik  
Oi zer ikusgarriak guk larrazkenetik



**Peio Erramouspe Karrika *Manexene* edo *Harrixabal* (1880-1967)**

7

Ihiztariendako hau da hau denbora  
Idorturik daukate orduko bolbora  
Aitzinetik diote solas hau ardura  
Hago hago hel gaiten hel larrazkenera

8

Orenak xoragarri dituzte goizetan  
Urtzoen atzemaiten mendi hegaletan  
Batzuk tiroka eta bertzeak saretan  
Beti hola dabilta hor larrazkenetan

9

Artoak bildu eta ereiten ogiak  
Hazaro erditako ahalaz guziak  
Perde perdea dira neguko jarriak  
Laster sortarazirik larrazken eztiak

10

Damurik ez betiko zure iraupena  
Denbora xoragarri eta hoberena  
Gazte ala zaharren gozo bat zarena  
Kantuz erraiten dautzut agur larrazkena

## MENDITIK HAZPARNERA

*Airea : Lili bat ikusi dut baratze batean*

1

Urteak lerro lerro dilindan lepotik  
Urratsa pizu eta gogoan arinik  
Hazparnera jautsi niz mendien gainetik  
Bertsulari ederren aditza gatik

2

Lehen ni hola hola orai bertzen aldi  
Hazparnen izan nintzen duela aspaldi  
Nerekilan nuela Mattin Larramendi  
Orduko gure sua berriz pitz baledi

3

Hazpandarrak eder du ongi etorria  
Bihotz beroa eta gozoa irria  
Pizu aire batekin gorputza joria  
Arrosaren pareko aldiz aurpegia

4

Elgarren berdintsuak zortzi bertsulari  
Guduka hasten dute batek bertzeari  
Erdaldunek non dute joko gisa hori  
Eskualduna da hortan nagusi orori

5

Jende oste ederra barne haren bete  
Haundi eta jakintsun bazela diote  
Lore sorte guziek balio badute  
Multxoan ederrago dirade nik uste

6

Oxobi ikusi dut bainan urrunera  
Begitartea arrai ene arabera  
Gostatzen dena gusta bertsu aditzera  
Igerika joan laike urez bertzaldera

**Peio Erramouspe Karrika *Manexene* edo *Harrixabal* (1880-1967)**

7

Bazterretik entzun dut segur solas frango  
Kexu aire batean baziren zonbaitño  
Zertako ziren hola gogoeta nago  
Aroa bortitz edo zelakotz boz ondo

8

Hauxe behar dauzuet orori aitortu  
Besta bururatuta zer zaitan gertatu  
Adin batean orai hunek nu harritu  
Debruak nauelakotz bortizki tentatu

9

Akabatzean zuri ene gorespina  
Bihotzaren onditik jaun Hernandorena  
Errotik Eskualduna eta fededuna  
Gure herri maitea goratzen duzuna

## MIRENTXU

*Airea : Iruten ari nuzu kiloa gerrian*

1

Mirentxu deitzen dena huna neskatxa bat (*bietan*)  
Iruten ari dena (*bietan*) amatxo bezenbat  
Oraiko denboretan ez da bertze hanbat

2

Oi zer nexka ederra kiloa gerrian (*bietan*)  
Bere jaunztura ere (*bietan*) moda zaharrian  
Irriño bat badauka beti aurpegian

3

Langilea osoki prestua ixila (*bietan*)  
Non-nahi aurka dadin (*bietan*) zuhurki dabila  
Holako bakar batek balio tu mila

4

Iruten pirun pirun berant arratsetan (*bietan*)  
Nihaurek ikusi dut (*bietan*) hogoi ta bortzetan  
Kantuño batzu ere kantatuz artetan

5

Alhorretan lanean artzain mendietan (*bietan*)  
Berdin ongi badaki (*bietan*) sukalde lanetan  
Edozoin ongi doha horren eskuetan

6

Jainkotiarra baita bihotzez garbia (*bietan*)  
Igantetan eliza (*bietan*) du egon tokia  
Aldareari buruz so ezti-eztia

7

Kutxa zahar bat badu oihalez betea (*bietan*)  
Bigarrena hasirik (*bietan*) ja badu urtea  
Ezkongei izan banintz zer etxekandrea

## UHOLDEA

*Airea : Salvatore gora da Garazi aldean*

1

Zer turbiak zauzkun menditarik jautsi  
Bazterrak gain behera dauzkute erautsi  
Lekuka da jendea heiagoraz hasi  
Nunbaitik hor laguntza nahiz ardietsi

2

Uhaste beltz itsusi eta lazgarria  
Jo daizku Espainia bai eta Frantzia  
Gizonak nola ahantz zer den izurria  
Barna duke sartua horren ukaldia

3

Dirdira batekin da betbetan erori  
Beha zagonak dauku segurtatu hori  
Zaku bat lehertu da urraturik jarri  
Hauzako mendia du urpean ezarri

4

Arbolak zeramatzan airos zoletara  
Etxeak etxolekin aurdikiz lurrera  
Harri eta harrokek zuten zorte bera  
Noiz bazterrak izan du holako ikara

5

Landa, mahasti, pentze, zenbat xahutua  
Zuharrak han hemenka daude larrutuak  
Urak beren bidetik dire baztertuak  
Zigor pisuaz gaitu zafratu Jainkoak

6

Herioa jendeak hurbil du ikusi  
Urak azkar goititzen direnean hasi  
Nor bera beti zoan ahalaz ihesi  
Irrisku denean da nunbait nahi bizi

**Peio Erramouspe Karrika *Manexene* edo *Harrixabal* (1880-1967)**

7

Karitate ederra bertute noblea  
Zonbat den hunkigarri elgar laguntzea  
Nahigabez urturik denean jendea  
Frantses bihotzak daki zer den emaitea

8

Urrikari gaituzte jendek bazterretan  
Zer ez dute emaiten behar ordu huntan  
Konda beza hunkiak haurride onetan  
Etsiturik ez dadin geldi auhenetan

## **Mixel Erramouspe Bidart *Ohako* (1899-1967)**



Mixel Erramouspe Bidart *Ohako* 1899ko buruilaren 13an sortu zen Bankan. Eskola gazterik utzi zuen eta laborantzaz bizi izan zen. 1926ko apirilaren 25ean ezkondu zen Kattalin Aranbel bankarrarekin. Zazpi alaba ukan zituzten : Terexa, Joana, Mari Angela, Mari Xan, Kattin, Eugenia eta Marzela. Bankako auzapez egon zen 1935etik 1945a arte, erran nahi baitu bigarren mundu gerla denbora guzia. Plazetan gutti agertu zen bertsulari gisa. 1967an zendu zen.

Oroitzapen bat : Martinbeltxen ezteien biharamunean, gaitzeko mantxada egin zuten bi Erramouspek, Manexenek eta Ohakok, Uhaldean.

*Michel Erramouspe Bidart « Ohako » naquit le 13 septembre 1899 à Banca. Il abandonna jeune l'école pour travailler à la ferme. Il épousa Kattalin Aranbel, elle-même de Banca, le 25 avril 1926. Ils eurent sept filles : Thérèse, Joana, Marie-Angèle, Marie-Jeanne, Catherine, Eugénie et Marcelle. Michel Erramouspe fut le maire de Banca de 1935 à 1945, c'est-à-dire durant toute la période de la Seconde Guerre Mondiale. Il apparut peu dans les concours d'improvisation. Il décéda en 1967.*

*Un souvenir : le lendemain des noces de mariage de Martinbeltx, les deux Erramouspe, Manexene et Ohako, firent une prestation remarquable à Uhaldea.*

## BANKAKO MISIONEA

1

Entzun ditut jendeak elgarri eleka  
"Munduan ez jakinak bagira milaka"  
On da Misionestek dezaten predika  
Argituz hobeago gaitezen bilaka

2

Zer egia horien ahotik entzuna  
Aitzina on da bainan ez da hortan dena  
Horrekin behar dugu bakerik barnena  
Bozkario sanoa berekin duena

3

Fedea atxikiz da behar aitzinatu  
Hola bizi moldea ahalaz hobetu  
Batek ez luke behar bertzea trabatu  
Izaitekotan ere elgar akulatu

4

Amodioa gauza ederrena baita  
Hitzak hautatuz baizik ez ditaike aipa  
Nun den eginbidea eta nola maita  
Garbi, argi ta kartsu mintzatu da Aita

5

Batek misione hok bai ote azkenak  
Nihaurek banabiltzan gogoeta berak  
Gero entzun ditugu meza ta bezperak  
Oraino hor baigira Jaunari eskerrak



## OILARANDOIKO BEILA

1

Maiatzeko goiz batez eder da denbora  
Gizonak goizik dira etxetik atera  
Lerroka badoatzi bideari gora  
Gidari hor dutela herriko ertora  
Oilarandoira beila baten egitera

2

Oilarandoi gainetik zer bixta ederra  
Beha jartzen delarik inguruetara  
Zelai, mendiak, ikus daizke urrunera  
Arbasoak bazoatzin mendi gain hortara  
Beren Nagusiari otoitz egitera

3

Adarzatik beheiti Leizarze, Arrola  
Segidan Munho gaina hau dena arbola  
Heien artean zenbait artzainen etxola  
Oilarandoiko malda trebeska dagola  
Zangoarekin hunkiz Baigorriko zola

4

Kapera bat bazen hor Aitek altxatia  
Aspaldiko denboran zagon eroria  
Baliatuz paretan lehengo harria  
Han berean egin da kapera berria  
Kurutze bat ederra gainean jarria

5

Kurutzea so dago Bankako alderat  
Eskuinetik Baigorri da herri eder bat  
Irulegi, Anhauze, Lasa ta Azkarat  
Garaziko herriak gero handik harat  
Guziak hartzen ditu bere gerizarat

6

Iguzkia hastean Orhytik behaka  
Harendako atea zabalik derauka  
Haize basari buruz Kurutzea bularka  
Bati ongi etorri bertzeari guduka  
Soaz begiratzen tu Aldude ta Banka

**Mixel Erramouspe Bidart *Ohako* (1899-1967)**

7

Gain hartara heltzea nolakoa den izan  
Ez dut omen erranen nihaur han bainintzan  
Ama onari gira galdeka arizan  
Urrunagotik ere aditzeko gisan  
Jaunaren hasarrea otoi ezti dezan

8

Burutik buru untsa egin dugu beila  
Euskaldunek egiten dakiten bezala  
Meza denboran oi zer kantu xaramela  
Bertzaldetik ari zen mendien mazela  
Erran nahiz hek ere sinesten dutela

9

Egun hortan kasiak gogoan dabilizat  
Oi zer erakaspentak horiek gureztat  
Kurutzea zaintzale bai eta laguntzat  
Grazia zerbait nahi duten guzientzat  
Mundu huntako ala bertze mundukotzat

10

Aintzineko lerrotan erran dugu behin  
Zaharra hartuz dela lan berria egin  
Guk ere behar dugu Jaunari galdegin  
Gauza bera gu baitan obra dezan berdin  
Arbasoen fedea beti bizi dadin

## Ximun Ibarra Zubikoa (1905-1979)



Ximun Ibarra *Zubikoa* 1905eko otsailaren 19an sortu zen Sunbillan. Nechoiz ez zen eskolan ibilia. 1936ko gerla zibileko iheslari gisa Bankarat etorri zen eta hor ezkondu 1955eko apirilaren 26an Petra Telletxearekin, Behereko-bordan. Bi haur ukan zituzten : Martin eta Mari Kriztin. Lanbidez, Iratin oihanetako langile eta ikazkin zen. 1979ko maiatzaren 17an zendu zen.

1946an, Donibane Lohizuneko Hernandorenaren sariketara agertzeko uzkur eta doi bat beldurti zegoen iheslari gisa zelakotz etorri Iparralderat. Orduan, haren lasaitzeko, Hernandorena jaunak Zubikoa izengoitia ezarri zion.

Geroztik izengoiti hori hil arte jarraiki zitzaion bertsulari munduan.

Sari andana bazuen irabazia, eta hirutan Nafarroako xapelketako finalerat joan zen : 1936an Elizondon, 1962an Beran eta 1963an Iruñean.

Maleruski, Zubikoaren bertsu anitz galduak izan dira.

Huna zer zion Zubikoak bere buruari buruz :

« Nere izaitez naparra naiz ni alde huntan gaur naizena  
Eta zen Ximun lehendabiziki jarri zidaten izena  
Geroztik hunat beti hor nabil munduan buelta barrena  
Mendian etxoletan ikhazkin ofiziorik onena »

Xalbadorrek Zubikoaz hauxe zion :

« Baigorri hunek orroitgarria izanen duke gaurkoa  
Hemen baititu bertsulariak hemen du ere Jainkoa  
Nintzelarikan ez pertsulari bainan haurtxo bat mikoa  
Nik pertsu kantan ari zagola ikusi dut Zubikoa »

Ondoko hau ere aitortu zuen Xalbadorrek :

« Nik beti gustu hartzen bainuen egiten zuen lanari  
Heltzea gatik egin izan dut gero indarrez zer nahi  
Egun bertsutan Eskual Herrian kantuz nola bainaiz ari  
Ximun-i esker heldua nago hunen urratsa gidari »

Eta Berjinantok :

« Aspaldian ikasi baitauka jokoak  
Nunbeit gorderik dauka barnarik golkoa  
Bainan azken lerroan beti du pikoa  
Azeri zahar baita gure Zubikoa »

Omendua izan zen Bankan 1981eko maiatzaren 17an.

## **Ximun Ibarra Zubikoa (1905-1979)**



*Ximun Ibarra Zubikoa naquit le 19 février 1905 à Sumbilla. Il ne fut jamais scolarisé. Il vint à Banca en tant que réfugié lors de la guerre civile de 1936, et y épousa Petra Telletxea le 26 avril 1955 à Beherekoborda. Ils eurent deux enfants : Martin et Marie-Christine. Ximun Ibarra fut garde-forestier et charbonnier à Iraty. Il décéda le 17 mai 1979.*

*En 1946, en raison de son statut de réfugié au Pays Basque nord, il fétai anxieux et quelque peu apeuré au moment d'apparaître au concours d'improvisation d'Hernandorena de Saint-Jean de Luz. Ainsi, afin de le rassurer, monsieur Hernandorena lui donna le surnom Zubikoa. Ce surnom le suivra par la suite dans le monde du bertsularisme jusqu'à sa mort.*

*Il remporta de nombreux prix, et alla à trois reprises en finale du concours d'improvisation de Navarre : en 1936 à Elizondo, en 1962 à Vera et en 1963 à Pampelune.*

*Malheureusement, beaucoup de bertsu de Zubikoa ont disparu.*

Ximun Ibarra *Zubikoa* (1905-1979)

## Zubikoa Mattinekin

1963ko abendoa, Aldudeko Sanoki salan.  
Gai emaila : Michel Itzaina.

*Pertsulari guziek ari dute permisa pasatzen. Xalbadorrek iragana du eta Mattinek ere berriki. Gaur bere otoan jina da ahatik lagun bat gidari. Bakarrik Ximunek ez du oraindik iragan. Mattinek 3 galde eginen dazko permisa behala pasatzeko gisan.*

### Mattin

Ximun nahi balinbaduk permisa pasatu  
Aintzinetikan behar duk hik ongi prestatu  
Otomobillean ibiltzea behar zaik gustatu  
Eta arnoari denbora hortan ukatu

### Zubikoa

Bere etxeko lana Mattinek du ikusi  
Eta nik horrek esan duana ikasi  
Autoan ibiltzea ez zaio itsusi  
Bihotzez maitatzen zaitut illea ta guzi

### Mattin

Permisaren pasatzen nahi baduk hasi  
Borondatea duenak aise du ikasi  
Bainan egin behar dukana gaizoa lehendabixi  
Permisa baino lehenago oto bat erosi

### Zubikoa

Mattinek gaur sano hau dauka burua  
Nere partez esan nezake ez dala txorua  
Aise konprenditzeko arrazoi flakoa  
Autoa erosteko aurretik dirua

### Mattin

Adina duk noiz nahi nahi baduk hasi  
Baina hortako behar duk koda ongi ikasi  
Eskuinetik heldu dena beti duk nagusi  
Eta prioritatea duk deneri utzi

## Ximun Ibarra *Zubikoa* (1905-1979)

### **Zubikoa**

Mattin ona ari zaiku xixtu eta tako  
Lehenago ere entzun det nik horrelako  
Autoa nik eresia alferrik huntarako  
Ez det ez ibiltzen ahal bixta daukat flako

### **Mattin**

Hire makurra nahi diat nik orai atxeman  
Permisaren pasatzeko hi bahago teman  
Itxura pixka bat behar diok inzpektorari eman  
Eta permis egunean bildots on bat eman

### **Zubikoa**

Permisaren pasatzeko lehenbixi propina  
Gero ere gastua hor dua aitzina  
Mattin hau gizon klarua bertzela ez fina  
Bera ez segur izanki ta lagunaikin jina

### **Mattin**

Lagunarekin jina naiz gaurko egunean  
Nahiz nihaur trankilki nabilan bidean  
Bainan sarri gibelerat joaiten girenean  
Edan gabe egon behar nian moxkor beldurrian

**Ximun Ibarra Zubikoa (1905-1979)**

### **Zubikoa Xalbadorrekin**

1963ko abendoa, Aldudeko Sanoki salan.

Gai emaila : Michel Itzaina.

*Lehen eta orai : zonbait urte hotan, gauzak ainitz kanbiatu dira. Batzu badira "lehen" horren alde, beste batzu "orai" en alde.*

*Xalbador izanen zira lehenengo moduen alde, eta Ximun modu berrien alde.*

#### **Xalbador**

Lehen eta gaur zer pentsatzen den horra beraz nik esplika

Gaztek zartzen ari dauzkute denak itzulipurdika

Lehen larrea zen lekuetan egiten daukute karrika

Ene partetik eman nezake horier dener harrika

#### **Ximun**

Anai maiteak nola gaude (e)zin hemen begira jarriak

Mundu honek hartzen ari tu orai modantza haundiak

Lehenengo zaharrak zokoan utzi eta balia berriak

Norberak ikusten ez baditu ezin sinetsigarriak

#### **Xalbador**

Adin batean garen presunak hauk behar ditugu jasan

Gu ere lehenbizi izan gira lehenengo gure gisan

Orai kusten tut denak sanjatzek gazteak nola dabilzan

Denak sanatu nahi dauzkute nahiz hobeki ez izan !

#### **Ximun**

Betiko plata berean ere beti baigira aspertzen

Zarrak utzirik hemen gabiltza gauza horien berritzen,

Eta jendiak arras goxoki denak diogu begitzen

Zu ere zaharra ikas ezazu oraiko modan bizitzen.

#### **Xalbador**

Lehenengo modu zaharretan naiz, ni ere horxet hazia

Hartan berean segitzeko nik holaxe banu grazia

Zuek gazteak zer duzute hor berritze hortan kasia ?

Sasitik alor egiten duzue alorretikan sasia.

## **Ximun Ibarra *Zubikoa* (1905-1979)**

### **Ximun**

Aita zu zaharra jarri zaite gazte horier begira  
Bestela ezer ikasi gabe hemendik joango zira  
Aspaldi sortu zu ez zara izan ni ibili naizen tokira  
Bide berri bat egiten ari dugu lurretikan ilargirat

### **Xalbador**

Bai ikusten dut indar haundiak egiten direla munduan  
Ez baitzen holakorik uste gu sortu ginen orduan  
Kusten dut ere bide berri hori ilargirat nundik doan  
Dakiguia zer izanen dugun guk bide horren buruan.

### **Ximun**

Aizazu zaharra, emaiten duzu gizon finaren tankera  
Ta ene ustez arrazoietan, ondo mintzatutzen zera  
Ilargi hortarat dikuaz baino arrasalbuak ez gera  
Ikusiko duzu bizi bazera hemendik hogei urterat.



**Ximun Ibarra Zubikoa (1905-1979)**

**Mattin, Xalbador, Zubikoa eta Uztapide**

1965ean, Aldudeko Sanoki salan.

Gai emaila : Michel Itzaina.

*Erraiten dute, aspaldi du, bazela Baztan alde hortan mutxurdin xahar bat etxe batean bizi zena bakarrik. Bainan ez zen arras bakarrik zeren baitzuen ofe azpian zahagia arnoz beterik.*

*Orai azken orenetan da eta zu Ximun zira zahagi hura eta ofe azpitik emaiten dazkozu hiru bertsu.*

1) Gaixo mutxurdin bihotzekoa ikusten zaitut galduta

Eia bizia luzatzen duzun nik zerbait lagunduta

Bizi (e)derxkoa pasatu degu bi biak elkar hartuta

Zurruta on bat egizu neri zerurat begiratuta.

2) Gaixo mutxurdin bihotzekoa izan naiz zure laguna

Ta barkatua izango duzu gaizki egin duzuna.

Ni oraindik ez arras hustua ta nago frango leguna

Lastima zuri hemen denbora sobra laburtu zaizuna

3) Aizu mutxurdin bihotzekoa hau da despeida polita

Modu horretan joan beharra'zu ni ohepean utzita

Gazte gaztetik nere ondora bidea zendu (i)kasita

Bertze munduan-e ez zera egongo arras nitaz ahantzita

Ximun Ibarra *Zubikoa* (1905-1979)

## OTXALDEZ ORROITUZ

*Airea : Ttiki ttikitik*

1

Notizia bat allegatu da ni bizi naizen tokira  
Otxalde zenan bizi moduaz esplikatzeko hitz bida  
Hirur hogoi ta zazpi urte du hilikan gizon hori da  
Agian gure entzuten dago izar artetik begira

2

Otxalde zena oraindik ez da orroitzapenik gabea  
Bere denboran nola izan zen hainbat gizon xelebrea  
Bestela pobre bizi zen bainan bertsulari alegrea  
Berez guarda zen Euskaldun garbi ta Bidarraiko semea

3

Ageririkan ez dagoela bataiatu zen elizan  
Ongi ditaken gizon batzuek berriro didate esan  
Emaztea ta haurrak hameka munduan ditula izan  
Larrogoi eta hiru urtetan sortu zen herrian hil zan

4

Urte alde bat iragana du Otxaldek mundu honetan  
Batzuek guarda zerbitzuan ta bertze asko erretretan  
Maitagarria izan delako Euskal Herrian denetan  
Egun eder bat pasa dezagun haren orroitzapenetan

5

Zortzi ehun bat libera zuen urte paga handiena  
Dударik gabe egia daike nik hala daukat jakina  
Orai horrela neurtuz dirua bizi beharrak bagina  
Egun bateko tabakoa ta aperitifaren dina

6

Euskal Herriko anai arrebak begira gaiten elgarri  
Aspaldiko koplari zena nola behar dan ezarri  
Hobekiago ikusitzeko ixtorio horren berri  
Buruilan seian al dan guztiak Beskoitzeraino etorri

# Juan Felix Iriarte Gainza *Berjinanto* (1912-1987)



Juan Felix Iriarte Gainza *Berjinanto* 1912ko urriaren 1ean sortu zen Sunbillan. Arrunt haurrean Iruritarat etorri zen. Ondotik, 1921ean, Aldudeko Koskarerat jin zen mutil, eta hor zuen bertsu moldatzen ikasi. Gero, Bankan ezkondu zen Beronika Ospitalekin 1938ko uztailaren 4an. Seme bakarra ukan zuten, Adrien, haurrean adoptatu zutena. Eskolan ez zen nehoiz ibilia eta laborantzatik bizi izan zen. 1987ko o-tsailaren 15ean zendu zen.

Ardura Joanes Harriet Lassa *Premundorekin* ari zen bertsuak. Orohar, plaza anitz kurritu zituen Iparralde osoan.

Berjinantok berak Xipri Arbelbideri kondatua :

« Behin, Jatsun ginen Xalbadorrekin. Ilunabarrean hogoi eta hamar bat buhame agertu ziren. 'Irri egin behar diaguk', erran zidan Xalbadorrek. 'Kontuz horiekin !' erran nion. 'Hi haien alde eta ni kontra ariko gaituk'. Ari izan ginen, beraz. Bai, bai-na, bukatzearekin, Xalbadorrek lasterka ihesi joan behar izan zuen ; ni, aldiz, bizkarrean eraman ninduten ».

Sari andana bazuen irabazia, bai eta xapelketak ere. Hara nola, Euskal Herriko xapelketa nagusian 5. atera zen 1936an, 3. 1950ean eta 7. 1951n. Nafarroako xapelketan, xapel-dun gertatu zen 1936an.

Huna zer zion Berjinantoz Joanes Arrosagaraik :

« Bazinuen handitasun  
Felix zaitugu guk entzun  
Ainitz balio zinukazun  
Erakutsia daukazu zinez lagunentzat maitetasun  
Nola agertu daukuzun  
Bihotz batez anaitasun  
Nun da hoinbertze ontasun »

Eta Lakak :

« Hark lagundua bertsu lanean hastera nindoanean  
Pentsa zer poza Bankarrarekin solastatzen nintzanean  
Kopla burrustan heldu zitzaion grazia ederrenean  
Euskalzale bat noiz nai kantari ta irriz ardurenean  
Matelak busti baiginituen behin ixildu zenean »

Hil ondoan, honela agertu zuen Xanti Iparagirre-k :

« Gazte gaztea hunat etorri egun hartarik gaur arte  
Zuk Banka eta Bankarrak denak zinez zinituan maite  
Bertso goxotan omore onez zombait toki eder bete  
Ai Berjinanto etxe zarraren zutabeek zer diote  
Atsedean on bat izan ezazu agur Felix Iriarte »

Omendua izan zen Bankan 1984ko ekainaren 24an.

## **Juan Felix Iriarte Gainza Berjinanto (1912-1987)**



*Juan Felix Iriarte Gainza Berjinanto naquit le 1er octobre 1912 à Sumbilla. Très jeune il vint habiter à Iurrita. Ensuite, en 1921, il fut domestique aux Aldudes à la maison Koskartea, et c'est là qu'il apprit à faire des bertsu. Puis il se maria à Banca avec Véronique Ospital le 4 juillet 1938. Ils eurent un fils unique, Adrien, qu'ils adoptèrent alors qu'il était tout jeune. Il ne fut jamais scolarisé et travailla à la ferme. Il décéda le 15 février 1987.*

*Il improvisait souvent avec Joanes Harriet Lassa Premundo. De manière générale, il chanta dans de nombreuses places du Pays Basque.*

*Berjinanto raconta un jour à Xipri Arbelbide :*

*« Une fois, j'étais à Jatxou avec Xalbador. Le soir, apparurent une trentaine de bohémiens. 'On va bien rigoler', me dit Xalbador. 'Attention avec ces gens-là !', lui dis-je. 'On va improviser : toi pour leur défense et moi contre eux'. C'est ce que nous fîmes. Oui, mais à la fin, Xalbador dut s'enfuir en courant ; moi, en revanche, ils me portèrent sur le dos ».*

*Il remporta de nombreux prix et concours. Par exemple il termina 5ème du concours général du Pays Basque en 1936, 3ème en 1950 et 7ème en 1951. Il fut champion de Navarre en 1936.*

*Un hommage lui fut rendu à Banca le 24 juin 1984.*

Juan Felix Iriarte Gainza *Berjinanto* (1912-1987)

## BANKAKO KANTIAK

*Airea : Ttiki ttikitik aitak et-amak*

1

Horra zer gauza xoragarriak zeru azpiko izarrak  
Gau ilunean behatzen bada ikusten dira bakarrak  
Bi koloretan ageri dira urreak ta zilarrak  
Horiek oro eginak ditu Jainko Jaunaren indarrak

2

Huna Bankako herri pollita izar eder bat iduri  
Oihanetako xori guziak arbolen puntan kantari  
Mendietako erreka hetan arrain pollitak igeri  
Bankan zoin urus bizi giren gu hortarikan da ageri

3

Udaberrian sortuko dira mendi gainetan loreak  
Bazter guziak xoratzen ditu berduraren koloreak  
Bai eta ere arboletarik xorittoen amoreak  
Nik ere kantuz igortzen ditut herriaren ohoreak

4

Itsasorikan ez dugu bainan baditugu hor mendiak  
Elgarren kantu besarka daude ttipiak eta haundiak  
Heien gainean alhatzen ari behiak eta ardiak  
Gain hei(e)tako sorotan berriz behorrak eta zaldiak

5

Bihotz guziak alegeratzen primaderako fazoinak  
Zelaietarik mendi gainerat heldu zaizkigu artzainak  
Bide hegian esnez beterik ikusten dira bidoinak  
Uda eder bat pasatzen dute laguntzen batu sasoinak

6

San Migeletik San Martinerat Bankako mendi gainetan  
Ihiztariak gorderik daude beren harmak eskuetan  
Uso gaixoak hor heldu dira nekaturikan airetan  
Eta ainitzak lurreat doaz pentsatu ere gabetan

**Juan Felix Iriarte Gainza *Berjinanto* (1912-1987)**

7

Bankako mendi gainetarikan urrun egiten da soa  
Alde batetik Adour ibaia bertzetikan Bidasoa  
Miraila baten pare han dago aitzinean itsasoa  
Begi luzekin behatzen bada Euskadi oso osoa

8

Berrogei eta hamar urte du Bankan bizitzen nizala  
Bizkar gainean jarri zait orai adin handiko itzala  
Hau bururatu behar dut orai hasia dutan bezala  
Gure Jainkoak Bankar guzier graziak ixur ditzala

Juan Felix Iriarte Gainza *Berjinanto* (1912-1987)

## BEHI BALIOSA

*Airea : Partida eder eder bat*

1

Mila urte beterik bederatzi ehun  
Aurten berrogoita sei kantuz pasa zangun  
Merkatuan izan naiz Bankatikan urrun  
Neretzat fortunarik ez baitago nehun  
Kantuz esplikatzen dut sujeta zer dugun

2

Behi bat erosi dut urrungo herritik  
Urrikitan sartua bainago geroztik  
Urrikiak debalde baitira ondotik  
Zer egin bertzerikan hala da ingoitik  
Galtzetan ere berdin sal niro gogotik

3

Hogoi urte baditu ez zen atzo sortu  
Zaharren erretretan beharko dut sartu  
Ahalak galdu ditu bizioak hartu  
Erostean ez nintzan deneri ohartu  
Tratulantak begiak erneak behar tu

4

Enganatu nautela ez dut ukatuko  
Ez naiz aski ernea kabala tratuko  
Pare gabea zela etxe prohotxuko  
Saltzaileak erranik « ez zaik dolutuko »  
Zer den ezagutu dut probatu orduko

5

Haragia guti du hezurak azkarrak  
Ezpata bat iduri du haren bizkarrak  
Menbrorik hoberenak ditu bi adarrak  
Heien puntan dabilta hezgailu zaharrak  
Ofizio hortako baditu indarrak

**Juan Felix Iriarte Gainza *Berjinanto* (1912-1987)**

6

Deizten hasi orduko zer egin badaki  
Esne onaren orde ostiko ausarki  
Firurikan dabilta kotxu eta alki  
Defentsatzeko molde guziak badazki  
Izterretako zainak ez biduzke gaizki

7

Enplegu bat horrentzat behar dut hauteman  
Galtzetan erostunik ez diot atxeman  
Arras kitorik ere ez dut nahi eman  
Buztartzen dutanian jartzen bada teman  
Bapur batek ez liro tiraka ereman

8

Gazte danik ez zuen buruka ikasi  
Bertzen desafiatzen ez zaio itsusi  
Bertzeak zaizkionean hari buruz hasi  
Prisa huntan ez dut nik sekulan ikusi  
Harresien gainetik badoa ihesi

9

Barrokia zokotik gau egun eztulka  
Errezelatua da ez ditaike uka  
Jendeak ari zaizkit noiz nahi oihuka  
Ezakala etxetik behi hori truka  
Egin nio gogotik hartzaleik banauka

10

Horra nik esplikatu berriak gogotik  
Konprenditu duzue guziek engoitik  
Jale segurra baita, ez beldur hortarik  
Erosten bat jinen da agian nunbaitik  
Hainbertze kalitate duenaz geroztik



Juan Felix Iriarte Gainza *Berjinanto* (1912-1987)

## DENBORAREN EGINTZAK

*Airea : Kanboko bestetan*

1

Denborak egin gaitu guziak mundura  
Denborak ereman du lehen egun hura  
Denborak eman deraut desira burura  
Denborak sar gaitzala hiltzean zerura

2

Denborak bereten tu aberats ta pobre  
Denbora ez delakotz deusentzat herabe  
Denbora iragaiten deusik erran gabe  
Denbora eginen da gu guzien jabe

3

Denborak ibiltzen tu gau eta eguna  
Denborarekin orok ikusten duguna  
Denborak egiten du denen ontasuna  
Denborak atsegabe bai eta fortuna

4

Denborak ibiltzen du lanoen sorgia  
Denborak iguzkia eta ilargia  
Denborak edertzen du izarren begia  
Denborak erranen du geroan egia

5

Denboraz ziren zeru eta lurak  
Denboraz ibai eta itsasoko urak  
Denboraz sartu ziren gorputzen jaidurak  
Denboraz atseginak eta arrangurak

6

Denborak deramatza gau egun asteak  
Denborak hilabete bai eta urteak  
Denborak emanen tu on eta kalteak  
Denborak itzaliko munduko usteak

**Juan Felix Iriarte Gainza *Berjinanto* (1912-1987)**

7

Denborak berak ditu bazterrak edertzen  
Denborak landetako liliak agertzen  
Denborak zuhaitzetan fruituak ekartzen  
Denborak nai dueno ez dira erortzen

8

Denborak tzartzen tu munduko ibaiak  
Denborak itsasoan urezko mendoiak  
Denborak derabiltza airean hedoiak  
Denborak uristatzen mendi ta zelaiak

9

Denborak sortzen ditu lurreko haziak  
Denborak kontserbatzen ororen biziak  
Denborak badabiltza izaite guziak  
Denbora dabil Jainko Jaunaren graziak

10

Denborak bizi gaitu bere on gaitzekin  
Denborak hilen gaitu guziak berekin  
Denborak sar gaitzala zorion batekin  
Denborak gozatzer aingeru onekin

Juan Felix Iriarte Gainza *Berjinanto* (1912-1987)

## ETXAHUNI

*Airea : Lili bat ikusi dut*

1

Agur eta ohore Pierra Etxahun  
Aspaldixkoan zaitut munduan ezagun  
Zure elekatzerat heldu nuzu egun  
Xuberoko gain hori ohora dezagun

2

Nahiz urrun bizi naiz mendi baten puntan  
Bi erresumetako zedarien juntan  
Garbi erraiten dautzut desira zer dutan  
Nahi zintuzket entzun ordainez bertsutan

3

Zer berri da Xuberon Piarre gaizoa  
Orhiko xoriaren hurbilen auzoa  
Izpiritu ernea bihotzez lazoa  
Bertsulari guzien nagusi gozoa

4

Zer egunak gintuen iragan Zalgizen  
Hain justuki ni ere han aurkitu nintzen  
Aitasoen modako dantzetan zabilten  
Heien han ikustea zoin xoragarri zen

5

Aitasoen denboran baziren jostetak  
Jauntzi xuri-gorriak iduri briketak  
Urre eta zilarrez inguru bonetak  
Orai arraro dira orduko suietak

6

Eskualdun oro gira Jainkoak eginak  
Bainan etorkizunez ez gira berdinak  
Xuberotarrak dira maiz libertiginak  
Kantari eder eta dantzari arinak

Juan Felix Iriarte Gainza *Berjinanto* (1912-1987)

## GORA BAIGORRI

*Airea : Perkain eta Azantza*

1

Hemeretzi ehun ta berrogoi ta seian  
A zer pilotariak Baigorri herrian  
Agirri nagusitu nahirik luzean  
Opor eginik zonbait sartu da etxean

2

Zahar gaztetan ziren Baigorriin aferak  
Batzu baginituen ustez lehen klasak  
Bertze pilotariak zahar errefusak  
Eta zer da gertatu : hauientzat xapelak

3

Hazpandarrekin zuten partida azkenik  
Hor jinak Baigorriat milaka goizetik  
Jakin nahi duenak jaun hoi berririk  
Bazkariz galda bitza gauzadun delarik

4

Aroa ez zaukaten nahi bezain huna  
Gure plaza hau ere plaza hits iluna  
Hau baitzen gibelean ez paretaduna  
Makur hoiiek guretzat alderdi frikuna

5

Hamahiru ta zortzi zer nahirik dela  
Aurtengoan segurik gure duk xapela  
Bainan jinen gituk bai Hazparne hortara  
Kuraie haundirekin ordainaren bila

6

Bertze hamabortzean kittara Hazparnen  
Hek hameka joko ta gu bostetan ginen  
Hasiak ginen jada diruen kondatzen  
Eta bertzeak aldiz bazkari manatzen

**Juan Felix Iriarte Gainza *Berjinanto* (1912-1987)**

7

Bainan Zaharrer Segi orduan zen pixtu  
Alfarok : “aupa !” eta Errekaldek xixtu  
Agirren bihurriek buruak xoratu  
Berterretzek goxoan ta Peiok trenkatu

8

Azken pertsua : Biba Baigorrirendako  
Bainan zueri ere Jaunak erraiteko  
Hartzaren larrurikan otoi ez saltzeko  
Ez balin baduzue hartzik larrutzeko

## HIL PIZTUA

1

Hogoigarren mendean bagatzi jadanik  
Jesu Kristo lurretik zerurat iganik  
Gure salbamenduaz munduan izanik  
Gure bekatuentzat bizia emanik  
“Azken judizoan jinen niz” erranik

2

Luzaiden egin dute pasione berria  
Abisatzera nua bertsutan herria  
Gau batez gizon bat bidian eroria  
Alegia hilikan zegola jarria  
Hura piztu zaut eta hauxe da loria

3

Goizeko hiruretan ez da mirakulu  
Eskandalak hartzia hainbertze orgulu  
Munduan elaiten hainbertze dolu  
Mahatsaren aihenak urinik ezpalu  
Harek enganutzen du anitz dizipulu

4

Norbait ikusiz geroz hilikan abantxu  
Kontzientziak badu zernahi mehatxu  
Nork josi behar zuen hainbertze petatxu  
Jendek izanen zuten anitz erreprotxu  
Ezpalitz erne egon gaixo Feliz Kotxu

5

Feliz gizahaxoa kexuan dabila  
Bihotz onekoa ta gainera umila  
Lasterka badoa hor apezaren bila  
“Jauna jin behar zazkit prisaka nabila  
Bidean atxeman dut gizon zonbait hila”

6

Herriko artzain onak laster eman du hitz  
“Zade istaño bat hor jinen nuzu Feliz”  
Gizahaizo gizona kexu eta murriz  
Hau erran bide dako bai askitto bortitz  
“Hila balin badago nik ez dezaket pitz”

**Juan Felix Iriarte Gainza *Berjinanto* (1912-1987)**

7

Erran bezala biak badoatzi laster  
Bidean errezatuz bizpahiru Pater  
Laguntza galdeginez aingeru guzier  
Heien ondotik urrun zadien Luzifer  
Hila piztu zaiete arte huntan bier

8

Apezaren ondotik gero medikuan  
Feliz gizazoa beti predikuan  
Medikua lasterka prisaka orduan  
Zapeta bat soinean bertze bat eskuan  
Telefona lepotik, atorra kanpuan

9

Sakelan bazituen hiru lau morfina  
Zazpi kaxeta eta bi penizilina  
Kontsultazionia zuten itsurat egina  
Bainan eriak erne zeraukan besaina  
Urrundik senditu du haien usaina

10

Biharamun goizean Feliz polizietan  
Donibanerakoan bere bizikletan  
Pasaportea egin behar du heietan  
Haiek ezarri duten pietun bidetan  
Lagunen abisatzen zoin beren etxetan

11

Feliz gizahaxoa zainak airaturik  
Ordu artean badu zerbait pasaturik  
Ustez etzuen harek egin bekaturik  
Bere lagun guziekin han elekaturik  
Libro utzi dituzte oro barkaturik

12

Diberti zaitzete ongi gazteak munduan  
Berantegi daiteke zahartu onduan  
Bainan hau harrazue betikotz buruan  
Legearekin ez has sekulan guduan  
Galduak baizarete betikotz orduan

## HITLERREN AMENTSA

1

Hitlerrek egin zuen Berlinen amentsa  
Mundu hau beretzea zer ideia mentsa  
Bazakien guziak zer gisaz ofentsa  
Miliunka gizona ezarriz defentsa  
Malur handiagorik ez zezaken pentsa

2

Arrano handi hori airatu zen ustez  
Inguratua zela bitoria batez  
Ez zuela beldurrik bertzek egin kaltez  
Europa hartu zuen zonbait hilabetez  
Inglaterran sartzeko tronpatu zen atez

3

Jainko bakar bat zela gidari zeruan  
Hitler aski bazela bertze bat munduan  
Urguilu gaixto hori harturik buruan  
Armadak eman ditu elgarri guduan  
Ustez bitorios zen betikotz orduan

4

Gizon urguilutsuak malur hau egin du  
Miliunka gizonen bizia han kendu  
Arima gaixo hetaz ez da urrikaldu  
Armekin nahi zuen mundua xuxendu  
Irabazi ustean bitoria galdu

5

Anitz nazionetan emanikan tropak  
Meneratu ginituen aleman arropak  
Ez dio onik egin Frantziako zopak  
Eta ikaratu du Anglesaren hopak  
Horier esker ukan du bizia Europak

6

Biba Amerikano bai eta Anglesak  
Heiekilan batean Ruso eta Frantsesak  
Egiazkoak ziren hek egin promesak  
Meneratu dituzte etsai errebesak  
Bai eta ere zaindu hitzeman interesak



**Juan Felix Iriarte Gainza *Berjinanto* (1912-1987)**

7

Lur gainean gerla zen bai eta lur petik  
Itsasoan tiroka uraren gainetik  
Ur pekoak gordeka zabiltzan barnetik  
Milaka soldadoa kurritzen airetik  
Bonbaz kargaturikan hodeien artetik

8

Milaka soldadoa hodeien gainean  
Europa trebesatuz lau oren airean  
Heiek ezarri dute etsaia menean  
Heietarik milaka heldu zirenean  
Espantu guti zuten ziloen barnean

9

Zetazko paraxuta harturik bizkarrerat  
Hodeietan jauzirik jausteko lurrerat  
Gizonezko erauntsia zerutik beherat  
Guziak armaturik etsaien gainerat  
Barbaro txar hoiekin guduan hartzerat

10

Gizon abilez ere behar da pentsatu  
Ez dugula denbora debalde pasatu  
Nahiz eta etsaia herritik kasatu  
Hodeietan jauzirik lurrean pausatu  
Gizonak ez du behar bidean tronpatu

## KOBLAK

1

Batzu bertzer ari gira beti gaizki erranka  
Jelosia gaixto batez guziez mendekuka  
Itzal bat ikus orduko hura konda oihuka  
Ez oraino den bezala emendatuz doblezka

2

Jeloskoak harturikan baigaude errabiaz  
Beti zerbait erraiteko bertzen bizi moldiaz  
Guhaur beti zuzenean juja gure mihiatz  
Bekaitzez gaudelarikan bertzek duten ongiaz

3

Batentzat diogu hola bertze batentzat hala  
Hau alfer hura gormanta bertze bat ezazola  
Hori berriz dabilana behar ezten bezala  
Ari gira erasian holaxe tirahala

4

Lasto bat ikusten dugu beti bertzen begian  
Pitrailikan handiena behinere ez gurian  
Gure hutsak beti kuku gibelesko zakian  
Bertzenak aitzinekoan gorderik agerian

5

Nehork ez dugu eskurik bertzeen jujatzeko  
Bakotxak gure itzalak baitugu jasaiteko  
Hutsik gabe denik nor da bertzer deus erraiteko  
Guharen burua dugu bakarrik xuxentzeko

Juan Felix Iriarte Gainza *Berjinanto* (1912-1987)

## LARRUNGO MENDITIK

*Airea : Lili bat ikusi dut*

1

Hemeretzi mende ta erdi du jadanik  
Jesu Kristo lurretik zerurat iganik  
Pertsu berriak aurthen kantatzen ditut nik  
Eskual Herri maitean gogoak emanik

2

Aspaldian gogoan bainuen desira  
Larrun mendi gainerat aurten izan gira  
Xoraturikan egon handikan begira  
Eskual Herrian toki ederrak baitira

3

Ageri da Nabarra eta Gipuzkoa  
Hurbilena Lapurdi pare gabekoa  
Gero Baxenabarre eta Ziberoa  
Urrunak gordetzen du gaineratekoa

4

Itsaso distiranta eder bezain handi  
Handik landa zelaiak, ibai eta mendi  
Aitasoek utziak guretzat aspaldi  
Bozkariatu gabe ez ditaike geldi

5

Barreneko zelaian zer herri aldeak  
Landa gizenak eta zer soro berdeak  
Ainitz koloretako lorekin gordeak  
Zoin urus bizi diren eskualdun jendeak

6

Ainitz gaztelu eta zer nahi jauregi  
Ageri da hemendik eder eta argi  
Mendi baten gainean horra Axkolegi  
Udan goxo da, bainan neguan goregi

**Juan Felix Iriarte Gainza *Berjinanto* (1912-1987)**

7

Itsasoan xalupak dabilta arraintzan  
Ainitz gizon lurrean ari laborantzan  
Mendietan artzainak gau-egun artzaintzan  
Horra Eskual Herrian zer gisan gabiltzan

8

Pertsu hok eman ditut Lapurdi maitean  
Larrungo gainean den hotelño batean  
Berriz etorriko naiz lagunen artean  
Jainkoak nahi badu heldu den urtean

9

Grazia eske nago Ama Birjinari  
Jar zaite zerutikan ororen gidari  
Zabal zazu fedea Eskual Herriari  
Emaguzu bakea mundu guziari

Juan Felix Iriarte Gainza *Berjinanto* (1912-1987)

## NERE MOXKORRA

*Airea : Euskaldun bat zen itsu eta bertsulari*

1

Maiatzaren erdiko egun eder batez  
Eritasun handi bat lotu zait suertez  
Kontsideratu gabe gorputzaren kaltez  
Moxkorra gertatu naiz aspaldiko partez

2

Ez nuen ezagutzen nafar arno beltza  
Horrek enganaturik maluros gabiltza  
Horren izariak nik xuxen har banintza  
Akabo laike nere gorputzeko gaitza

3

Dantzatu nahi eta ez dezaket dantza  
Kantuz hasi orduko ez naiteke mintza  
Ene zainak airean ikaran dabilta  
Gorputz ahul batean hau da zorigaitza

4

Bi zangoek ez naute xutikan jasaiten  
Begiak lanbrotuak deus ez dut ikusten  
Kalterik baizik ez dut neretzat egiten  
Nafarraren xurruapak ez baititut uzten

5

Pindar guziak zaizkit aitzinean piztu  
Bi beharrietarik zazpi mila xixtu  
Besta ederra nuen ene faltaz histu  
Zerbait gisaz bainuen kokotsa markistu

6

Barberaren etxean izan naiz bakarrik  
Gorputza miratu daut banuen makurrik  
Jaun barberak erran daut ez izan beldurrik  
Gehiago ez biltzeko holako moxkorrik

**Juan Felix Iriarte Gainza *Berjinanto* (1912-1987)**

7

Edan dezadan bainan izari onean  
Gorputzak galdeginik egarri denean  
Arnoak hartzen badu bat bere menean  
Ez dela ibiliko pausu xuxenean

8

Ororen xoragarri Noeren arbola  
Horren indarrarekin ibili naiz hola  
Nafarrako mahatsak ixuri odola  
Hegoan sortu bazen Nafarran dagola

9

Ostalerra zuk ere baitutzu hobenak  
Izartu behar luke azkarregi denak  
Arno horren gatik nik izan ditut penak  
Bide makurak hartu utzirik xuxenak

10

Nafarro beltza hago sortu lekuan hor  
Arrotzaren herrian galdu gabe nehor  
Berriz ez nezakala gisa hortan moxkor  
Bertzenaz jarriko nauk betikotz aguador

## SUNBILLATIK BANKARA

1

Mila bederatzi ehun eta hamabigarren urtean  
Sunbilla hortan sortua naiz ni Nafarroako partean  
Nere paperek erraiten dute urriko hilabetean  
Baxenabarren bizi naiz orai herri maitatu batean

2

Gazte denboran ezin bainuen nik eskolarikan hartu  
Jakitatea zoin den balios bizian nuzu ohartu  
Santa sekulan eskola hortan ez dut zangorikan sartu  
Inorantzian beharko dut nik bizi naizeno xahartu

3

Gizona beti uros nahian sortu izan da mundura  
Bainan sekulan ez da biziko berak nahi duen gostura  
Udaberriko lore ederrak erortzen dira negura  
Gizonak ere hortan berean izanen du arrangura

4

Sortzetik hunat nola izan den nere munduko bizia  
Hasia naizen pertsu hauetan esplikatzen dut guzia  
Aldude hortan etxe batean jende onekin hazia  
Eta Jainkoak eman zerautan pertsuetako grazia

5

Hamabi urte bete orduko pertsu kantatzen hasia  
Euskal Herriko ohiduretan bihotza nuen josia  
Gure aitason pertsu moldetan hartu nuen fantesia  
Nahiz ez nuen eskoletako alkietan ikasia

6

Hamasei urte bete orduko kantatzen nuen plazetan  
Libertimendu herriko besta bai eta kabalkadetan  
Orduko lagun pertsulariak hantxe daude zeruetan  
Ni ere noizbait pasatuko naiz hek joan ziren bidetan

7

Baxenabarren memento huntan zazpi pertsulari gira  
Erran behar dut nor giren ere egon zaitezte begira  
Plaza batean hasten badira xoragarriak baitira  
Jainkoak berak igorri gaitu kantari Euskal Herrira

**Juan Felix Iriarte Gainza *Berjinanto* (1912-1987)**

8

Baxenabarren egin dezagun bertsularien erronda  
Koplari multxo pollitagorik nehon ez ditaike konda  
Mixel Xalbador paregabea Laka xapelketan on da  
Arrosagarai eta Alkate, Mendiburu ta Ezponda

9

Nahiz ez naizen urrun ibili Euskal Herritik aparte  
Pertsu hauetan noizbait hasi zen azkenean Iriarte  
Ixilik egon banaiz ere ni aspaldian orain arte  
Hemendik goiti hartu gogo dut pertsulariekin parte

10

Euskal Herritik Jainko Jaunari otoitz beroak helaraz  
Gure mintzaira gal ez dadien atxik dezagun ahalaz  
Nahiz badiren kantu ederrak frantsesez eta erdaraz  
Euskal Herriko jende maiteak kanta dezagun euskaraz



## URTEBERRIKARI

1

Agur Eskualduneri urte on batekin  
Nahi nuke mintzatu bi solas zuekin  
Xaharra iraganik huna urte berri  
Irakur ditzazuen mila plazerrekin

2

Zonbeit pertsu igorritz *Eskualdunarekin*  
Bere present ederra zer dauku ekarri  
Penak ainitz dako atsegin bertzeri  
Hobeago bat galda dezagun Jaunari

3

Herriko xahar hoiek erraiten dutena  
Plazerrak ondotikan beti badu pena  
Askotan gertatzen da egia da dena  
Guziek ezin izan plazer handiena

4

Urte xaharra zauku bakean finitu  
Berriaren eskurat entregatu gaitu  
Hau behar dugu orai oneski segitu  
Hunen bururatzeaz ardura orhoitu

5

Otoitz egin dezagun guk oroz gainetik  
Zerbeit ardiesteko bakearengatik  
Hor entzuten ditugu anaien artetik  
Burrumba lazgarriak mendiz bertz'aldetik

6

Horra gure auzoan zoin gaizki dabilzan  
Tristezia da hori munduko bizitzan  
Otoiz egin dezagun Jaunaren gerizan  
Guretzat ez dadien holakorik izan

**Juan Felix Iriarte Gainza *Berjinanto* (1912-1987)**

7

Galda dezagun ere urte berrikari  
Bakea ekar dezan mundu guziari  
Laguntza galdeginez Ama Birjinari  
Zerutik beha dezan behar orduari

8

Beraz urte berria burura dezagun  
Egon gaiten guziak betikotz Eskualdun  
Gogoz Eskualdun eta bihotzez fededun  
Zeruko Ama ona hartuz gure lagun

Juan Felix Iriarte Gainza *Berjinanto* (1912-1987)

## ZAZPI PROBINTZIAK

*Airea : Agur Xuberoa*

1

Gure Euskal Herriko zazpi probintziak  
Lau Espainiak eta hor hiru Frantziak  
Gure aitaso onek guretzat utziak  
Goazen beti oneski biziak  
Jaunaren graziak Euskaldun hasiak  
Begira guziak

**Agur Donibane**

**Gure aitasok egin herri pollita zu**

**Zonbait urte ote**

**Bortz ehun pasaturik ba omen ditutzu**

**Baxenabarreko**

**Nausitasun guziak zuk omen dauzkatzu**

**Gauden Donibandar**

**Fermu eta azkar**

**Estimatuz elgar**

**Hau dut erran behar**

**Atzo egun bihar**

**Gora Baxenabar**

2

Donibanetik orai banoa Maulerat  
Agurtzen dudalarik Etxahun jaun hura  
Onets nazazu Jauna ez bada sobera  
Kantuz sartzia zur'herri alderat  
Denen arabera gora 't'alegera  
Euskaldun bandera

3

Mauletik Uztaritzen ote naiz sartuko  
Herrialde hoberik ez dut aurkituko  
Jainkoak egin zaitu nausi Lapurdiko  
Zaude beti herriarendako  
Lapurtarrendako heien haurrendako  
Gidari betiko

**Juan Felix Iriarte Gainza *Berjinanto* (1912-1987)**

4

Uztaritze hortarik banao aparte  
Zedarri haundietan onesten banaute  
Donostia hortarat sartu nahi nuke  
Laket leku dela baitiote  
Lau anaia maite azkar bezain gazte  
Hor izan behaute

5

Bizkaia horrendako hau da parabola  
Probintzia hortan da Euskaldun arbola  
Nihaurek ikusi dut Gernikan dagola  
Urre zilar eginik etxola  
Gaixua nehola ez daite kontsola  
Bere haurrak hola

6

Iruñeko murailak pasa banintza nik  
Nabarran sar nindaik Bizkaitik joanik  
Agur bat merezi du Euskaldunen ganik  
Fama ona baitu beti danik  
Ez da eskas janik ez eta edanik  
Lur onak emanik

7

Kastillaren zedarri da Alaba hori  
Zazpigarren bertsua Gasteiz hiriari  
Guziak eskaintzeko zeruko Aitari  
Jauna zaude zu gure gidari  
Hiltzean oroitu barka otoi guri  
Bekatoroseri

8

Gure Euskal Herriko mendi hegaletan  
Zazpi izar badira gau oroz argitan  
Lapurdi Baxenabar Xubero gainetan  
Bizkai Nabar Gipuzkoa hortan  
Alabaren hetan bere haurridetan  
Zazpi anaietan

## **Triztan Ximun Erramouspe Karrikaburu (1914-1988)**



Triztan Ximun Erramouspe Karrikaburu (Manexeneren semea), Ximun soilik deitzen zutena, 1914ko agorrilaren 2an sortu zen Bankan. Apezgai gisa, ikasketak egin zituen Uztaritzen eta Baionan. Ezkondu zen 1954ko ekainaren 5ean Donibane Lohizuneko Luixa Passicotekin, eta edari saltzaile izan zen lanbidez. Haurrik ez zuten ukan. Donibane Lohizuneren bizi izan ziren, baina azken urteak Bidarrain iragan zituzten. 1988ko maiatzaren 25ean zendu zen.

Bertsutan aitarekin ikasi zuen. Gehienak idatzirik eman zituen, zorigaitzez gazterik ixildu zelako. *Gure Herria* aldizkarian agerrarazi zituen ere hainbat ipuin eta kondaira, saristatuak izan zirenak.

*Tristan Ximun Erramouspe Karrikaburu (le fils de Manexene), qu'on appelait simplement Ximun, naquit le 2 août 1914 à Banca. Il étudia au petit séminaire à Ustaritz et à Bayonne. Il se maria le 5 juin 1954 à Saint-Jean de Luz avec Louise Passicot, et devint marchand de boissons. Ils n'eurent pas d'enfant. Ils vécurent à Saint-Jean de Luz mais passèrent leurs dernières années à Bidarray. Il décéda le 25 mai 1988.*

*Il apprit à improviser avec son père. Il écrivit la plupart de ses bertsu, car malheureusement il se tut très jeune. Il fit aussi paraître dans la revue Gure Herria de nombreux contes et légendes qui furent primés.*

## ARRANOA

*Airea : Ume eder bat*

1

Bi hogoi eta bortz urte ditu zarri zinuztela xutik  
Abaddierekin jaun Etxeverrik et' Hiriart-Urrutik  
Geroztik hunat heien xederi fidel jarraiki zarena  
Ez nauke zutaz mintzatu gabe astekari *Eskualduna*

2

Harroka mutur baten gainetik nola arrano kumea  
Hegalak xabal airatzen baita nahiz oraino xumea  
Behatuz bazter guzietarat zalu doha hegalduna  
Gisa berean abiatu zen astekari *Eskualduna*

3

Ongi egile guzien lana da beti hastiatua  
Heien ondotik laster dabila etsai errabiatua  
Bere hitzetan eta obretan baitzen irakurgai ona  
Sortzetik zuen begitan hartu astekari *Eskualduna*

4

Arranoari hiru belatxa oldarrean ziren lotu  
Nahiz eskualdun bortuetarik hegaztin hori haizatu  
Gudian errex bere kolpetan ageri da bihotzduna  
Hiru etsaier nagusitu zen astekari *Eskualduna*  
[*Hiru belatxa horiek ziren : Le réveil basque, Eskual Herria eta Argizailea*]

5

Ama samurrak bere haurretaz dauka arta berezia  
Gerla denboran dolu minetan zen Eskual Herri guzia  
Ait'ama xahar emaztekien umexurtxen bihotzmina  
Zure hitz onez arindu duzu astekari *Eskualduna*

6

Berriki dute zure zainetan odol berri bat ezarri  
Nahiz ez zinen orai artean indarrez ttipitzen ari  
Hedatuz zohan hedoiak barna arranoaren omena  
Behin betikotz gaztetu zare astekari *Eskualduna*

**Triztan Ximun Erramouspe Karrikaburu (1914-1988)**

7

Eskualdun seme odol garbiak dagon eskualde guzitan  
Dela Parisen dela Madrilen orobat Ameriketan  
Zure baitan du kausitzen segur bakar denean laguna  
Zeren harentzat baitzare beti astekari *Eskualduna*

8

Orai artino atxiki duzu gure Herrian eskuara  
Zu joanez geroz akabo daite maiteño dugun mintzaira  
Lanoz gorderik beltz kausitzen dut guretzat etorkizuna  
Agian luzaz biziko zare astekari *Eskualduna*

## BAKARRIK JENDEN ERDIAN

1

Haize epelak eztiki harturikan besoetan  
Ilun ezkila ozenik hegaldatu da airean  
Zeinu goxoa neretzat kiretsik dator gau huntan  
Ilunik bainagolakotz bakarrik jenden erdian

2

Menditikan ur xirripa lehar artetik da jausten  
Erasia eztiño bat duela adiarazten  
Uhaitz garbia denean zelaietaraino heltzen  
Han nunbait lehar artean ohart gabea da urtzen

3

Mendiko uraren gisa freskorik naukan gogoa  
Uhaitz garbia bezala laño nindoan bizira  
Oraino ez bainakien oi zonbat nintzen zoroa  
Gizona gizonarentzat otso bat zela segurra

4

Neguko haize bortitzak arbolak ditu murrizten  
Oihan itzaltsu ederrak buluzirik hits ezartzen  
Nehoren amodioak ez daut gogoa berotzen  
Lore haizeak hunkia bihotza hasi zaut hesten

5

Ilargi xuri eztiak arrairikan dauka gaua  
Hedatuz bazter ororat argiarekin bakea  
Ilargiak aratsari emaiten duen musua  
Zoin hotza kausitzen dutan eta zoin gozogabea

6

Larrazkeneko izotzak eihartu duen hostoa  
Arbolatik berexirik erortzen da lur gainera  
Gero haizeak harturik zirimolaka badoa  
Halaber ene gogoa dabil asmutik asmura

7

Primaderako inhara larrazkena jin denean  
Neguko hotzen ihesi hegalez hegal airian  
Bere ohandze beroa utzirik hegatz batean  
Zalu zalua badoa hego aldera lorian

8

Oi ni inhara maitea altxa banadi zerura  
Primaderaz primadera joan nindaie zu bezala  
Bakarrik jenden erdian begian daukat nigarra  
Maiz aurkitzen dudalakotz ipar eta mendebala



Triztan Ximun Erramouspe Karrikaburu (1914-1988)

## **ESKUALDUNA LEHEN TA ORAI**

*Airea : Kitarra txartxo bat*

1

*Eskualdun* irakurgai astekariari  
Zonbait hitz nahi dazkot pertsutan ezarri  
Alta etzaio eman ene ahalari  
Ez banintz amodioz lotua lanari

2

Berrogoita bortz urte baduzu sorturik  
Izen bat ere duzu ederrenetarik  
Hastetik haur xume bat bezala egonik  
Emekiño haundituz jarri azkarturik

3

Hastetik eta gero gaixo *Eskualduna*  
Etsai ainitz bidean hatzeman duzuna  
Beldurrik gabe doha beti bihotzduna  
Trabaz axola gabe bipilki aitzina

4

Astekari maiteak gure herrietan  
Badu bai begitarte igand'egunetan  
Erostenak artoski bospasei plegutan  
Etxerat baderama bozkarioetan

5

Xabal xabala mahai gainean emanik  
Gazteak pilotako sailean jadanik  
Aitak merkatukoak jakin nahienik  
Bakotxak bere hari gostu du lehenik

6

Bertzeak bezperetan xaharrak etxean  
Hek irakurtzen dute gustuz atsaldean  
Afal ondoan berriz ohean joaitan  
Bi hiru aldiz berdin guziek astean

## Triztan Ximun Erramouspe Karrikaburu (1914-1988)

7

Irakurgai onak du gogoan apaintzen  
Eta gaixtoak aldiz bihotzak usteltzen  
Eskual Herria duzu xutik atxikitzen  
Kaskoien neurrirat eror ez gaitzen

8

Ameriketan zauden herritar umea  
Dorpe da atzerrian bakar bizitzea  
Ez dezazun ahantzi zure sor etxea  
Irakur astekari eskualdun maitea

9

Halare gur'artean badira oraino  
Burxoro ote diren dudatua nago  
Deus ezin konpreni ta nik baino gehiago  
Erdaldun az'osto bat dute nahiago

10

Etxeverri, Abaddie, Iriart-Urruti  
Egun hobietarik bazinezte xuti  
Erran zinezakete guzier goraki  
Guk hasi dugun lana badiak ederki

11

*Eskualduna* jaun hoiek egin zutenean  
Hargin beltzak hordukotz gure eskualdean  
Han hemenka hasiak zerbait ilunpean  
Zuk trabatu dituzu beren lan tzarrean

12

Orai arte bezala zuk gaitzazu lagun  
Hargin beltzak gutarik egon diten urrun  
Izan gaiten bizian eskualdun fededun  
Zerua saritako merezi dezagun

Triztan Ximun Erramouspe Karrikaburu (1914-1988)

## GAUAZ IRRINTZINA OIHANEAN

1

Mendi mazelak behera jautsia da iluna  
Ezeztatuz bere pean zelai eta oihana  
Bazter etxe batetarik tiraka estekari  
Xakur bat ari da luzaz saingaz erre'hotsari

2

Urrunean gau beleak uhuriaz dabilta  
Harizetik haritzera kurrituz oihan beltza  
Bet betan huna nun diren den guziak ixiltzen  
Dutelarik oihanean irrintzina aditzen

3

Nigarretan boz mehea marraska bat iduri  
Ozenduz eta azkartuz altxatzen da emeki  
Eta irri samin batek du gero akabatu  
Garrasiaz oihartzunak emanaz errepostu

4

Artizarra zero zolan ñirñir ari delarik  
O zoin bakan entzuten den irrintzina jadanik  
Bere arbaso maiteen odol hura ote du  
Eskualdunak zorigaitzez behingotzat ukatu

5

Duela hamabi mende Ibañeta aldean  
Irrintzina aditurik altxatzen oihanean  
Errolan gaitzaren kontra zonbat ote gerlari  
Oihu bera ihardetsiz lotu zen guduari

6

Zonbatak gure artean dagozin uzkurduak  
Beren eskualduntasunaz zonbat ahalgetuak  
Orreagan irrintzina egin duen odola  
Ahalge tzar batendako ez da hanbat axola

**Triztan Ximun Erramouspe Karrikaburu (1914-1988)**

7

Irrintzinak duelarik mendian ihardesten  
Oiharzunak lotsaturik laster da hegaldatzen  
Eta juaiten nola doan haizearekin lana  
Har'ziloan uzkurturik lo zagon arranoa

8

Irrintzina aditzean otoi zu Eskualduna  
Orroit zite zer izan den lehen zure omena  
Zeru zolarat behatuz arranoaren gisa  
Atzar zite Eskualduna utz zure beldur hitsa

## PRIMADERARI

*Airea : Lurraren pean sar nindaiteke*

1

Primadera da lehen ainarak xuri ta beltz erreinuak  
Iguzkitara berotuz lumak dabiltz harrotuz heguak  
Primadera da ta urrunduak iragan haize gaixtuak  
Zueri ere bozkarioak ditzala zabal goguak  
Primadera da gure kantuak ez ditu hustu neguak

2

Primaderaren jitean dire bazterrak alegeratu  
Nola haur baten sortzeak baitu etxe guzia apaindu  
Primaderaren eskuak dauzku lorez mertxikak beztitu  
Ikusgarriez begiak piztu eta bihotzak arraitu  
Primaderaren oihartzunak du gure kantua lagundu

3

Primadera da hogoi urtean begitarte guzietan  
Iduri mundu hasi berrian gizonaren atzartzean  
Primadera da bihotz batean amodioa sartzean  
Ainarak ere primaderetan dabiltz beren ohantzetan  
Primadera da egiten dena delarik bertzen onetan

**URTE ON**

1

Nola uhainak itsas gainean uhaina baitu estaltzen  
Gisa berean urte zaharra berriak dauku lekutzen  
Heldu den huntan nehork ez daki zer den oraino aurkitzen  
Zoriona dut bihotzez dener urtatsetako eskaintzen

2

Zahar gazteek ez baitakigu guretzat noiz den hiltzea  
Ainitzendako izan daiteke urte hau azken urtea  
Egon aiduru goiz edo berant izanen baita deitzea  
Hoier bakean Jainkuaren ganat desiratzen dut joaita

3

Gizon gaztea azkar zirade irriz zaude biziari  
Ene adinian hil daitekea duzu eman gogoari  
Zu bezen azkar ikusi ditut lotzen zonbait urtean  
Aspaldi hilik emana dute beren gorputza lurrari

4

Aldiz xaharra zuhurki dago herioari begira  
Urte berriko ixtant guziek hurbiltzen dute hobira  
Odola aiko zainetan hoztu haren indarrak jua dira  
Zuhaitz idorra ez da ostantzen jinik ere primadera

5

Elurak dauzka mendi mazelak bere jauntziaz gorderik  
Iparrak aldiz lur gaina oro hotzarekin hormaturik  
Gauza guziak izana gatik negu bortitzaz historik  
Bedats eztiak hats bero batez zarriko ditu pizturik

6

Penarik asko izanen dugu urte huntan jasaiteko  
Mundu gainean girenaz geroz deus ez dugu segurago  
Nola bedatsak neguko gaitzak dituen ezeztatuko  
Atsegin batek pena guziak dauzku ahantz araziko

7

Nola uhainak itsas gainean uhaina baitu estaltzen  
Gisa berean urte zaharra berriak dauku lekutzen  
Heldu den huntan nehork ez daki oraino zer den aurkitzen  
Zoriona dut bihotzez dener urtatsetako eskaintzen

## XORI KANTARIEN EGUNA

1

Zeru gainean banazka dire izarrak itzaltzen ari  
Eta goizaren lehen musuan xoriak ere atzarri  
Sasu artetik hostoen petik denek diote elgarri  
Egun berria urratu zaukuk gaitezen eman kantari

2

Gauak ekarri freskura hartan zoin den goxo entzutia  
Ezkila zeinu ozenarekin xoriaren erasia  
Kanpo guzia atzartzen ari dena arrabots sasia  
Adots gaitzean haitzen erdian doalarik ur haundia

3

Mendi hegalak iguzkiaren jauntziaz dire beztitu  
Gero lerratuz haren argia zelaietara da heldu  
Hunki beroak emeki ditu azantzak oro ixildu  
Xoriek ere sas(i)pean dute itzaltto bana hautatu

4

Heien xixtuak ondikotz ez du oihartzuna inarrosten  
Ixilik oro oihanen zolan freskura dute galdetzen  
Beroa joanez gaua hurbilduz boza zaiete azkartzen  
Zeren gauaren hatsak baititu berriz kantari egiten

5

Haize gozo bat iguzkiaren kaldari zako jarraiki  
Eztitasunez bete oren bat gauzen gainera da jautsi  
Mement hoberik ote ditaike lur hunen gainean kausi  
Ilun ezkilak bere deia du gauari eman airoski

6

Zeru gainean izarrak dire banazka argitzen ari  
Eta hatsaren lehen musuan xoriak gorderik jarri  
Sasu artetik hostoen petik errana zuten elgarri  
Egun berria ideki arte gaitezen eman loari

## **Marixan Minaberry Etxart *Atalki* (1926-...)**



Marixan Minaberry Etxart *Atalki* 1926ko buruilaren 7an sortua da Bankan, Beherekobordan. Lanbidez idazkaria zen. 1954 arte Bankan bizi izan zen, eta ondotik Uztaritzeko Atalkienia etxean.

Bertsutan autodidakta izan da. Bertsu, liburu eta diska andana badu ekoiztua, ezagunak direnak. Olerkiak ere argitaratu zituen *Gure Herria* aldizkarian, Ande Reño izenpedurapean.

IKAS batasunak omendu zuen Senperen 1992ko maiatzaren 23an.

1998an ohorezko Euskaltzain izendatua izan zen.

*Marie-Jeanne Minaberry Etxart Atalki est née le 7 septembre 1926 à Banca, dans la maison Beherekoborda. Elle fut secrétaire de métier. Elle vécut à Banca jusqu'en 1954 puis dans la maison Atalkienia à Ustaritz.*

*Elle est autodidacte dans l'art d'improviser. Elle publia beaucoup de bertsu, de livres et de disques connus. Elle fit aussi paraître des poèmes dans la revue Gure Herria sous le pseudonyme de Ande Reño.*

*L'association IKAS lui rendit hommage à Saint-Pée le 23 mai 1992.*

*En 1998 elle fut nommée membre d'honneur de l'Académie de la Langue Basque.*



**Marixan Minaberry Etxart *Atalki* (1926-...)**

Huna hemen 2013ko uztailaren 13an Bankarrek eskaini omenaldi kantaldian Bankako eskolako haurrek kantatu kantuaeren hitzak :

**ARBOLATIK HOSTOA**

*Airea : Oskorrik*

Arbolatik hostoa  
Airez aire badoa  
Iduri du xori bat  
Hegaldatzen zerurat

**Ufa ufa haizeak**  
**Dantza dantza hostoak**

Ah banitu nik ere  
Joiteko airez aire  
Bi hegal pollit arin  
Aira nindaik berdin

# **Bankarreri bildu beste bertsuak**

## **IHAUTE ASTE**

1

Ihaute astearteko  
Goiz eta arratsaldeko  
Alegeraki plazan dantzan  
Gazteak deskantxatzeko  
Soinua ere izan dugu  
Gustura libertitzeko (bis)

2

Libertizioneak hargatik  
Bere fluketa ondotik  
Kofesatzera joan izan gira  
Gure aldin gogotik  
Atsuluzione idorra ukan  
Herriko erretoretik (bis)

3

Jaun erretora adizazu  
Hitz bat plazer baduzu  
Penitent gaixoer hamar ostiko  
Eman nahi omen duzu  
Bainan Jesusen legeak hori  
Hola manatzen ez dauzu (bis)

## Bankarreri bildu beste bertsuak

### KABALKADA

*(Bertsu hauek Piarre Erramouspek bere aitari ikasiak dira ; ustez, Mizel Munok idatziak dira.)*

*Bankako kabalkadako bertsu bat :*

Mamerek eman dio Beltzari abisa  
Utz dezan populua otoi bere gisa  
Zahar gazte guziak muliskan dabilta  
Zato lhintz(ar)at eta otsoak jan bitza !

*(Mamere = Ma Mère ; Beltza = Bankako apeza 1898tik 1922ra ; harek zituen Saint-Joseph-eko serorak lhitzagan instalatu, etxe hori berea izanki)*

*Kabalkada biharamuneko bertsua :*

Egun seinalatua gogoan dutana  
Bankako kabalkada biharamuna  
Goizeko 8etan ganbararat ama,  
“Ez duka jeiki gogo denbora duk joana !”  
Jeiki nintzen bada obedituz ama  
Xutik ezin berma  
Zangoak ezin goberna  
Zerk huntaratu du gure seme ona ?

## Bankarreri bildu beste bertsuak

### ANTTON ETA MARIA

1

Hamar pertsu berriren kantatzera noa  
Banka hortan suietak ardura baitira  
Antton eta Maria xangrinetan dira  
Uste gabeen gaixoak tronpatu baitira  
Elgarri soberaxko konfidatu dira

2

Iragan maiatzaren lehen larunbatean  
Gertatu ixtorioa Bankako herrian  
Antton eta Maria baitziren gustian  
Amodioz itsutuak baitziren orduan  
Obra berriño hori gertatu artean

3

Gizona zitzaionean etorri etxera  
Nola gertatua zen bardako afera  
« Agur Antton heldu nuk hire ikustera  
Aita baten izena baihoa hartzera  
Hire semea barda sortu duk mundura »

4

Anttonek arrapostu kopeta gorarik  
« Ez diat arrangurarik libro nuk hortarik  
Jainkoak baino gehiago nik ez diat hogenik  
Bi urte baditiat orai pasaturik  
Ez dutala egin nik harekin elerik »

5

Antton gogoetan zagon arrazoinekilan  
Lehen zer egin zuen nexka harekilan  
Karkulak egin ditu etxeko andrekilan  
« Habil ele xuritzerat gizon batekilan  
Manexeneko Ximun har'ak hirekilan »

6

Antton hori badoa harturik gizona  
Aferen xuritzerat partidaren gana  
« Zer komisione dautan igorri ni gana  
Hik makur egin badun nik duta hogena ?  
Komisioneak igozkin partzuerren gana »

## Bankarreri bildu beste bertsuak

7

« Partzuerrentzat ez diat deusik erraiteko  
Bakarrik ditudanak oro hiretako  
Baduka tupeta horren erraiteko  
Orai ez nuk trenpean mokoka hartzeko  
Hau tokatzen deiat hire ta enetako »

8

Antton etzakala egin odol gaixtorikan  
Hori hola gertatu duk egun goitikan  
Hortarik ez daitekek egin bertzerikan  
Aditzia badiat zaharretarikan  
Surik ez den lekutik ez dela kerikan

9

Urrikalgarri dira holako presunak  
Berek ezin goberna beren ontasunak  
Ez du hori egiten amodio finak  
Elgarri beha bite konbeni direnak  
Azkenean hori du malezian denak

10

Hamar pertsu eman'tut orok kantatzeko  
Kasu hortan direnek etsenplu hartzeko  
Otoitz egin dezagun holakoendako  
Har dezaten xedea ihes egiteko  
Kalte haundi baita arimarendako

## Bankreri bildu beste bertsuak

### **BANKARI**

Han zaude zu ibarraren maldan, mendi mazelan dilindan  
Neguko izotzetan daldaran eta izerditan udan  
Burua apalduz haizeari, zu aztaparka lurrari  
Hazi sumearen laborari, bainan beti kantari

**Basuritz, Aisarri, Azaldegi, Inarabia, Donalegi  
Oihansoro eta Ustordoki, gu bankarrak izanki  
Erkaitzalde, Hairako Erreka, han nunbait Iramehaka  
Oihanpea ta Basakarrika, zutarrak gira Banka**

Beti jasan ditu haize txarrak, oi zure zuhaitz zaharrak  
Oraino bizi zaizko abarrak, baitauzka erro azkarrak  
Mila esker eta goraintziak, zuk gaintuz nekeziak  
Nolazpait baitituzu haziak zure ume guziak

**Pantxo Hirigarai**

# NUN ZER

Aintzin-solasa / Préambule	2-3
Peio Erramouspe Karrika <i>Manexene</i> edo <i>Harrixabal</i>	4-5
<i>Apez berri bati</i>	6
<i>Artzain mendian</i>	7
<i>Bedatsa edo primadera</i>	9
<i>Buruz-buru</i>	12
<i>Eskualdun kantaria</i>	14
<i>Eskualdunak eta Gernikako arbola</i>	15
<i>Gerla haundia</i>	18
<i>Kristof Colombo Ameriketako lurretan</i>	20
<i>Larrazkena</i>	24
<i>Menditik Hazparnera</i>	26
<i>Mirentxu</i>	28
<i>Uholdea</i>	29
Mixel Erramouspe Bidart <i>Ohako</i>	31
<i>Bankako misionea</i>	32
<i>Oilarandoiko beila</i>	33
Ximun Ibarra <i>Zubikoa</i>	35-36
<i>Aldudeko 1963ko saioa : Zubikoa Mattinekin</i>	37
<i>Aldudeko 1963ko saioa : Zubikoa Xalbadorrekin</i>	39
<i>Aldudeko 1965eko saioa : Mutxurdina eta zahagia</i>	41
<i>Otxaldez orroituz</i>	42
Juan Felix Iriarte Gainza <i>Berjinanto</i>	43-44
<i>Bankako kantiak</i>	45
<i>Behi baliosa</i>	47
<i>Denboraren egintzak</i>	49
<i>Etxahuni</i>	51
<i>Gora Baigorri</i>	52
<i>Hil piztua</i>	54
<i>Hitlerren amentsa</i>	56
<i>Koblak</i>	58
<i>Larrungo menditik</i>	59
<i>Nere moxkorra</i>	61
<i>Sunbillatik Bankara</i>	63
<i>Urteberrikari</i>	65
<i>Zazpi probintziak</i>	67
Triztan Ximun Erramouspe Karrikaburu	69
<i>Arranoa</i>	70
<i>Bakarrik jenden erdian</i>	72
<i>Eskualduna lehen eta orai</i>	73
<i>Gauaz irrintzina oihanean</i>	75
<i>Primaderari</i>	77
<i>Urte on</i>	79
<i>Xori kantarien eguna</i>	78
Marixan Minaberry Etxart <i>Atalki</i>	80
Bankarri bildu beste bertsuak :	82
<i>Ihaute aste</i>	82
<i>Kabalkada</i>	83
<i>Antton eta Maria</i>	84
<i>Bankari (Pantxo Hirigarai)</i>	86

**BANKARREK BEREN BERTSULARIER ESKAINI OMENALDIA**  
**2013ko uztailaren 13an**  
**KANTALDIAREN EGITARAUA**

*Hasteko :*

Mixel Oçafrain auzapezaren hitza  
Jean-Léon Inchausperen bertsa

*Lehen partea :*

*Marixan Minaberry-Etxart Atalki (1926-...)*

Eskolako haurrak : "Arbolatik hostoa"

*Peio Erramouspe Karrika Manexene edo Harrixabal (1880-1967)*

Asteazkenekoak : "Menditik Hazparnera"

Guy Saldubehere : "Apez berri bati"

Aurélie Etchepare : "Larrazkena"

Jean-Louis Laka : "Uholdea"

Ezpeletan kantuz : "Gerla haundia"

Erramun Marticorena : "Kristobal Colomb"

Pantxix eta Marie Bidart : "Artzain mendian"

*Mixel Erramouspe Bidart Ohako (1899-1967)*

Pierre Erramouspe : "Oilarandoiko beila"

Leire Uhalde eta Maider Lerissa : "Bankako misionea"

*Ximun Ibarra Zubikoa (1905-1979)*

Kantiruki : "Otxaldez orroituz"

Xalbador eta Ihidoi : "Aldudeko 1963ko saioa Mattinekin : Permisa"

Xalbador eta Ihidoi : "Aldudeko 1963ko saioa Xalbadorrekin : Lehen eta orai"

Lauburu : "Aldudeko 1965eko saioa : Mutxurdina eta zahagia"

*Bertsu saio laburra*

*Pausa*

*Bigarren partea*

*Juan Felix Iriarte Gainza Berjinanto (1912-1987)*

Amaia Riouspeyrous : "Sunbillatik Bankara"

Aire ahizpak : "Hitlerren amentsa"

Menditarrak : "Behi baliosa"

Panpi Portugal : "Larrungo menditik"

Izarrak : "Hil piztua"

Bankarrak : "Bankako kantiak"

*Triztan Ximun Erramouspe Karrikaburu (1914-1988)*

Maitena Monaco : "Bakarrik jenden erdian"

Kattalin Indaburu : "Xori kantarien eguna"

Xendari ahizpak : "Gauaz irrintzina oihanean"

*Bertsu saio laburra*

*Denek elgarrekin : « Antton eta Maria » eta « Bankari ».*